



Magala gerriratu

Eta euste horma mugiarazi zuen. Ondorioz, Iparraldeko Autobiako erreia itxi eta trafikoa Olatzagutitik barna desbideratu zen. / 5

Martxoak 8 egunaren bezperan, udalak matxismo digitalarekin kezkatuta daude / 9

Tren sozialaren alternatiba ezinbestekoa iruditzen zaie plataformetakoei / 12-13

Josu Etxeberria txirrindulariak errehabilitazioa ongi doala dio, baina luzerako dela / 16-17

Muga Zero talde lakuntzarrak Herri Urratsen joko du, maketa lehiaketa irabazi ondoren / 22-23

SINADURAK



JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 4



SAKANAKO ANITZARTEAN ZERBITZUA / 4



ANNE AZKONA UNANUA / 22

ERAIKUNTZA GEHIGARRIA 2024

MARTXOAK 15

948 564 275 • 661 52 32 45 • PUBLI@GUAIXE.EUS

IRAGARKIA JARTZEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 6

"Mugikorrek harreman osasuntsua eraiki behar dugu"

TELMO LAZKANO MUGA IRAKASLEA, IKERLARIA ETA DIBULGATZAILEA

Telefono mugikorrek eta sare sozialekin duten harremana sana izateko, nerabeek gaitasunak behar dituzte. Gaian aditua den Lazkanok formazioa eskainiko du Sakanan



Telmo Lazkanok Sakanako formazio saioetan parte hartzen du. UTZITAKOA

Eneida Carreño eta Mainer Betelu

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Nerabeak eta telefono mugikorrak. Egun, etxe gehienetako eztabaida iturburu nagusia telefono mugikorraren erabilera da. Zein da mugikor bat izateko adin egokiena? Egunean zenbat ordu utzi beharko genieke? Guraso-kontrolerako aplikazioak instalatu beharko genituzke? Nerabeek geroz eta osasun gaixotasun gehiago dituzte, harremana du horrek aplikazioekin? Gai honek kezka handia pizten du. Telmo Lazkanok Muga irakasle, ikerlari eta adituak nerabeen eta pantailen gaia landuko du Altsasun eta Etxarri Aranatzeko antolatutako formazio saioetan.

NERABEEN GARRASIA

Nerabeen garrasia. Osasun mentala aldaketa garaian liburu argitaratu duzu Maitane Ormazabal terapeuta eta coach-arekin elkarlanean (Alberdania). Gizarte zientzietako irakaslea zara, ezta?

Ofizios goizetan hala jarduten dut, baina arratsaldetan ikerlari eta dibulgatzailea naiz, pantailen, mugikorraren eta sare sozialen gaien inguruan.

Nerabeen garrasia liburu Las voces del silencio izenburuarekin itzuli duzue gaztelarrera. Bitxia.

Gauza bera esateko bi modu ezberdin dira. Isiltasun horretatik hitz egiten ari den sufrimendua iradokitzen da gaztelarazko tituluan, isildutako ahots horiek

garrasika daudela, eta euskarazkoan zehazten du zein ari den sufrizten, hau da, nerabeak.

Nerabeen osasun mentala duzue hizpide liburuan, eta nerabeek sare sozialekin duten lotura. Egoera praktikoak ere plazaratzen dituzue, eta erronka horiei nola aurre egin. Telefono mugikorraren inguruan sortzen ari dena, osasuntsu izatetik oso urrun dago. Gainera, nerabeen artean inoiz izan ez diren buruko osasun arazoak dauzkagu. Gogorra da liburuan hau irakurtzea.

Hamarkada batetik onak mugikorrarekin dugun harremana adizio gisa definitu genezake lasai asko, baina, horrekin batera, azkeneko hamarkada honetan buruko gaixotasunek eztabada egin dutela ikusi dugu. Gorakada izugarria da, batez ere nerabeen artean. Bi errealitate hauek eskutik doaz, gustatuko litzazukeen baino neurri handiagoan, eta liburuaren helburuetako bat da guzti horri argia jartzea. Ez da kasualitatea, eta liburuan xehe-xehe azaltzen dugu.

Liburuak bi zati ditu. Lehenengo egoeraren analisia da, eta bigarrena praktikoagoa da; proposamen zehatzak eta nerabeen bizipenak jasotzen ditu.

Lehenengo zatiak gaiaren lan-keta sendoa egiten du. Bestelako ikerketak irakurtzerakoan, askotan geratu gara galdera batekin: "eta orain, zer?" Ez genuen guri hori gertatzea nahi, eta bigarren zatia gehitu genuen

galdera horri erantzuteko. Horrela, nerabeen eta pantailen inguruko erantzun eta tresna posibleen sorta bat planteatzen da, bai familia testuingurutik, eskola testuingurutik eta gizarte gisa aurrera eraman daitezkeenak. Liburuaren gure esperientzia eta jakintza pertsonal eta profesionalekin jaio den arren, ebidentzia zientifikoa handia du atzean, eta publikazio zientifikoa gisa onartua izan da. 200 ikerketa baino gehiago egin ditugu, eta profesional askorekin bildu gara: psikologoak, psikiatrak, irakasleak... Beraien esperientziarekin mamitu dugu liburuaren, eta tresna praktikoak jarri ditugu irakurlearendako eskuragarri. Baina, batez ere, nabarmenduko nuke nerabe askorekin elkartu garela, eta baita gaixotasun mentalak izan dituzten eta dituzten per-

"AZKEN HAMARKADAN GAIXOTASUN MENTALEK EZTANDA EGIN DUTE, NERABEEN ARTEAN BEREZIKI"

"SARE SOZIALEN ETA APLIKAZIOEN EZTANDAN NERABEAK ZAURGARRIENAK DIRA"

tsonekin ere. Beraiek izan dira euren kabuz testigantzak idatzi dituztenak: hitza jarri diote horrelako ibilbide ilunetan zehar sentitu duten guztiari. Beraz, esango nuke liburuak nahiko modu holistikoa jasotzen duela nerabeen gaur egungo errealitateari. Bai ebidentziak esaten duena, hau da, profesionalen esperientzia eta tresna praktikoak, testuinguru ezberdinetan emaitza onak izan dituztenak, eta, batez ere, lehen eskuko testigantzak, nerabeen garrasi horiek.

Badirudi nahikoa informazio dugu, kontziente garelako mugikorraren erabilera zer ondorio ekarri ditzakeen edo erabilera zertara eraman gaitzakeen, baina argi dago zerbaitek huts egiten duela.

Bai, hau maila askotan eta gai ezberdinetan gertatzen da, baita honetan ere. Askotan guztia egiten dugu gure nerabeendako, baina beraie entzun gabe. Eta nik uste dut hori badagoela. **Fenomeno honen garapena oso azkarra izan da; hamarkada bat daramagu telefono mugikorraren buru belarri murgilduta gaudela. Gu, eta gure gorputza ere, ez goaz abiadura horretan.**

Sarritan aipatzen dut badirudela Paleolitoko emozioak, Erdi Aroko instituzioak eta jainkoen pareko teknologia ditugula. Hor amildegi handi bat sortu dugu, non gizarte gisa erortzen garen, baina baita gure nerabe asko eta

Lazkanoren saioak

• **Altsasun 'Mugikorraren eta pantailen auzia komunikazioaren garaian: ongizate emozionala eta komunikazioa jokoan'**
Martxoaren 1ean, 17:30etik 18:30era, eta martxoaren 9an, 11:30etik 12:30era, Txikian. Antolatzailea: Iñigo Aritza ikastola.

• **Etxarri Aranatzeko 'Mugikorraren auzia' familiendako hitzalditailerra**
Martxoaren 13an eta 21ean, 17:00etan, Etxarri Aranazko Kultur Etxean. Antolatzaileak: Andra Mari ikastola, San Donato eskola, Altsasuko Institutua, Etxarri Aranazko Udala eta Etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzuak.

asko. Horregatik diogu, kanpo egitura horretan gertatu den garapen horri guztiari heltzeko eta zubiak eraikitzeko, amildegi horretan eror ez gaitzen, barne garapen bat behar dugula. Adimen

emozionalaren beharra inoiz baino handiagoa da, eta horri eutsi behar diogu.

Nerabeek inoiz baino arazo mental gehiago dituztela, garrasi egiten dutela eta askotan ez diegula garrasi horiei erreparatzen jasotzen da liburuan. Garrasi egiten dutenean laguntza eskatzen ari dira, adikzio bat dutela konturatzen direlako?

Interpretazio hauek egiterakoan tentu handiz ibili beharra dugu. Izan ere, osasun mentalen hazkundearen atzean ez dago faktore bakar bat. Sare sozialen ez-tanda hau pieza garrantzitsu bat bezala ulertu behar dugu, baina ez da bakarra, puzzle oso konplexu baten zati oso garrantzitsu bat baizik. Liburuan bestelako piezak izan daitezkeenak mamitzen ditugu, burbuila emozionala eta abar. Nerabe askok ondorengo helarazi digute: "gu baino helduagoak zaretenez, gure arazoak zuenak bezain larriak ez direla ikustarazten diguzue, baina 12 eta 18 urte bitarteko pertsona bati, zuendako txorrada bat dena, bizitza kosta dakioke. Gazteagoak izateagatik, gure sentimenduei zilegitasuna kentzen diezue. Entzunak eta ulertuak izan behar dugu, eta ez epaituak". Hori da nerabeek utzi diguten mezueta bat, eta entzun beharrezkoa da.

Zergatik jarri duzue arreta nerabeengan? Zaurgarritasun maila handiago dutelako, edo etorkizuneko gizartea beraiek eraikiko dutelako?

Finean, arreta batez ere helduengan eta gizartean jartzen da. Baina egia da nerabeek direla pantailen kontu honetan zaurgarrienak eta ondorio larriak pairatzen ari direnak. "Zer gertatzen ari zaie gure nerabeei horrela egoteko?" da egiten dugun galdera. Baina, agian, gizarteari galdetu behar ko genioke. "Zer gertatzen zaio gizarteari bere txikiak, nerabeak, horrela egoteko?" Gizartea da gaixorik dagoena, eta sistematikoki ari da gure nerabeengan eragiten. *Nerabeen garrasia*-n kausa nagusienetakoa bat aipatu dugu, mugikorrek, pantailak eta sare sozialak, baina ez da kausa bakarra.

'NO PHONE CHALLENGE'

Liburuan zuk zeuk Donostiako Usandizaga Peñaflorida Amara Institutuko DBH 4. mailako ikasleekin martxan jarritako proiektua jasotzen da, *No Phone Challenge*.



Telmo Lazkanok 'No Phone Challenge' proiektuan parte hartu zuten ikaslerekin. BALEIKE

Ikasleak astebete egon ziren telefono mugikorrik gabe, eta ondorio garrantzitsuetara iritsi zirenen. Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Elkar Eginez saria jaso zuen, adizioen arloan Euskadi 2022-2024 jardunbide onentzat hautatua izan ondoren.

Proiektuak ikasleen artean telefono mugikorraren eta plataforma digitalen gehiegizko erabilera prebenitzea zuen helburu. Hiru zati zituen. Lehenengoa zen ikasleek gaiaren inguruko ezagutza sendoa bat eraikitzea, eurek jakiteko honen guztiaren inguruan zer dagoen, eta eskuartean zer duten; finean, enpresa teknologiko hauek beren helburuak nola lortzen dituzten jabetzea. Bigarren zatian ikuspuntu kritiko bat garatu zuten. Ikuspuntu horri esker, mugikorrek eta plataformekin harreman osasuntsu bat izatetik gertuago zeuden. Bazekiten benetan zer zuten eskuartean, eta nola eragiten zuen horrek gizartean eta norbanakoan. Hirugarren zatian, ikasgelan ikusten genuena euren bizitzan sartzea izan zen koska. Nola? Astebetez mugikorrek zuzendaritzan giltzapean utziz, eta eguneroko emozional bat idatziz.

Zer jaso behar zuten egunerokoan? Egunerokoan idatzi behar zuten nola bizi izan zuten astebete hori mugikorrik gabe, zein emozio eratu zituzten, adikzio sintomarik izan zuten, zeintzuk, eta nola

aurre egin zioten horri guztiari. Ausartak izan ziren. Hor maila akademikoan argi eta garbi ditugun emaitzak agertu ziren. Ikasleek mugikorrek, plataforma digitalekin eta sare sozialekin duten harremanaz hausnartu egin zuten, eta ondorioak atera zituzten.

PORNOGRAFIA

Mugikorrek nerabeek pornografiari irrisgarritasun handiagoa dute, eta familien eta adituen kezka handia da. Honek guztiak zein lotura hipotetiko izan dezake ikusten ari garen bortxaketen hazkundera?

Egun, 9 urtetara jaitsi da pornografiarekin lehenengo kontaktuak; hori datu objektibo bat da. Eta kontaktu hori ez da intentzionala izan; hori nabarmentzekoa da. Industria pornografikoa izan da erabiltzaile hauek, haurrak, aurkitu dituen. Pornografiaren lehenengo kontaktuak haur eta gazteei agertutako banner eta pop up bitartez etorri izan dira. 9, 10 edo 11 urterekin haur batek oraindik ez ditu, inondik inora, balioak, autoestimua eta identitate irmoki eraikita; eta iritzi kritikoa, are gutxiago. Beraz, halako edukiak kontsumitzerakoan bi efektu gertatzen dira askotan: batetik, normalizatu egiten dira bertan egoten diren jokabideak, eta, bestetik, askotan errepikatzen diren dinamika bat gertatzen da. Ondorioz, bildu garen

psikologo eta psikiatra gehienek alerta jarri dute horretan: hazkundera dauden bortxaketak azaltzeko orduan pornografiaren kontaktu oso goiztiar hau jartzen dute kausa nagusitzat, batez ere berdinen artean gertatzen direnak, hau da, nerabeen artean eta, gainera, taldean gertatzen direnak.

HARREMAN OSASUNTUA

Mugikorraren erabilera egokia nola berma daiteke? Zenbat urterekin, zenbat ordu...?

Teknologia honek erantzukizun guztia erabiltzailearengan uzten du. Hau ez da teknologia neutro bat, ez gara ari bizikletan nola ibili irakasten, ari garena da pertsona bat laguntzen, gaitasunak gara ditzan, zerbait oso adiktiboarekin harreman osasuntsu

"NERABEEK GAITASUNAK GARATU BEHAR DITUZTE, BESTELA APLIKAZIOEK BERA KONTROLATUKO DUTE"

"FORMAZIO SAIOAN HELDUEK ZAPLAZTEKO EDERRA JASOTZEN DUTE, ETA AURRERA EGITEKO TRESNAK"

bat izateko. Gaitasun horiek ez baditu, ezingo du kontrolatu, eta aplikazio horiek bera kontrolatuko dute. Hori gertatzen bada, atentzio gaitasuna murrizten dela ikusiko dugu, buruko gaitasunaren hazkunde bat ematen dela, eta abar. Abiapuntua gaitasunak lortzea da. Horretarako, adin jakin bat behar dugu, eta, horrekin batera, hezkuntza integral edo formazio holistiko bat. Noski, ahal den neurrian legiazko koherente bat eta aplikazio seguruagoak beharko genituzke, mundu honetan denak ez duela balio. Nerabeek industria honen atzean dagoen guztia ikasi behar dute, zergatik eskaintzen zaizkigun berez ikusgarriak diren aplikazioak dohainik, guztioi, uneoro. Nola liteke, zerbait dohainik eskainita, gaur egun enpresa teknologiko horiek munduko enpresa aberatsen artean egotea? Gai horiek jorratuko ditugu Altsasuko eta Etxarri Aranazko saioetan.

Telefonoaren erabileraren adina atzeratzea eskatzen duten taldeak sortu dira. Taldean eragitea argi izpi bat izan daiteke?

Guztiz. Taldearen indarra funtsezkoa da. Horregatik poztu nintzen Etxarrin hainbat talde bildu izana formazioa antolatuta eta gai honi heltzeko. Egindako lanaren ondorioz, Ondarrun 12 urteko nerabeen artean %80k ez du mugikorrik. Halako dinamika geroz eta ohikoagoak dira. Gipuzkoan 50 talde baino gehiago daude, eta martxoaren 14an bilduko gara Donostian, Gipuzkoa osoa saretzeko.

Nolakoak dira formazio saioak?

Lehenengo formazioan gaiaren inguruko ezagutza sendoa eraikiko dugu, eta bigarren praktika eramango dugu. Sareta-ko arriskuen aurrian zein irtenbide ditugun, eta zein tresna landu ditzakegun aztertuko dugu, etxeko txikienek eta guk mugikorrarekin eta sare sozialekin harreman osasuntsu bat eraikitzeke. Zintzotasun osoz, lehenengo formazioan zaplazteko ederra jasotzen du jendeak. Ezezagutzan jardun dugu azken hamarkada honetan, eta orain datuak esku artean ditugula, errealitatea zein den ikusten dugu. Askok esaten didate formazioak barruak mugitzen dituela. Baina argi hori ikusteak asko laguntzen du, eta bigarren saioan gauzak aurrera eramaten hasiko gara. Erantzuna beti oso ona izaten da.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Konstituzioaren 49. artikulua

Horixe da aldatuko den artikulua. Horixe da azkeneko 45 urteetan egin den Konstituzioaren hirugarren aldaketa. Eta hala izan beharko zuen, orain, eta orain dela 20 urte. Zein izan da aldaketa? "Gutxitu" hitza "desgaitasuna duen pertsona" hitzaren truke aldatzea.

Lelokeria eman dezake, baina askotan iseka egiteko erabilia izan den hitza da, eta, zoritxarrez, erabiltzen jarraitzen da. Aldaketa kontzeptualaz gain, 40 urte baino gehiagoko borrokari esker aurrerapauso itzela izan da. Batez ere pertsona hitza desgaitasunaren aurretik doalako.

Ez hori bakarrik, aldaketari lotuta, lehen aldiz desgaitasuna edo aniztasuna duten emakumeak eta neskak erdigunean jarri dira. Orain arte ez ikusiak izan dira, eta bere eskubideak behin eta berriz zapalduak izan dira. Adibidez 2020ra arte, ez borondatezko antzutea egiten zen behar baino gehiagotan. Euren iritzia jakin gabe, askotan euren baimenik gabe... euren gorputzarekin zer ikusia duen erabaki garrantzitsua,

ZEIN IZAN DA ALDAKETA?

"GUTXITU" HITZA

"DESGAITASUNA DUEN PERTSONA" HITZAREN TRUKE ALDATZEA

beraiek kontuan izan gabe... Orain dela lau urte, besterik ez, legez debekatu zen.

Eta horrelakoekin orriak eta orriak bete ahal genituen. Denok, bai denok, bizitza duin eta autonomia nahi dugu eta merezi dugu. Komunitatean, bizitza proiektu pertsonala,

lagunak, lana... Zenbatekoa da desgaitasuna duten pertsonen langabezia? Kontatzen al da?

Eta jaio eta bizi nahi duten herrietan bizitza independenterako aukerak? Eta aisialdia? Eta... Hurrengo batean jarraituko dut, orain Kongresuak onartutako aldaketak ematen duen indarra hartu, eta ospatzeko momentua da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Emakumezkoen KulturARTEkotasuna, eta Palestina libre!

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Emakumea: ama, alaba, amona, ahizpa, iloba eta biloba; laguna... Artista, bizkorra, emankorra, maitalea, maitatua, maitakorra eta amorantea. Zaintzailea eta zaindu beharrekoa. Hangoa, hemengoa, inongoa eta mundukoa, bazter eta txoko guztietakoa. Anitza hizkuntzan, ohituretan, sinesmenetan, maitatzeko eran, bizitzeko moduan, kulturaren... bere osotasunean. ARTEan.

Iragana, oraina eta geroa. Etorki(zu)na. Etorkina izan ala ez. Bera gabe, bizitarik ez;

ondararik ez, etorkizunik ez. Bizia, bizkorra, ausarta eta lotsatia. Zapaldua, gutxietsia, baliogabetua, munduan eta historian zehar; tamalez. Izenduna, ez zenbaki dena. Izena eta izaera. Izana, dena, eta izango dena. Ederra arimaz eta asmoz.

Palestina, emakume izena omen da. Mundua astintzen duena beloa jantzi eta abertzaletasunaren zapiarekin ahoa ezkututzen duenean; garaia eta adinak gelditzen irribarre egiten duenean; jatorria jarduten duenean, dotorea erreakzionatzen duenean, egoskorra eta bizia, eta, aldi berean, lasaia. Pasioaren eta identitatearen sakratua, bere moralez eta harrotasunez aberatsa, emakume palestinarra.

Hasi berri dugun asteburu honetan "Bi ordu

Palestinarekin" ekimena gauzatzera doa Nafarroako zortzi herritan, tartean Altsasun. Bi ordu ez; bizitza osoan zapalduak izan diren, dauden, eta izango diren munduko emakumeak gogoan, bihotzean, elkartasunean, guztion ARTEan. Sarraski, bortxaketa, zapalkuntza guztien gainetik, emakumeok aurrera.

Martxoaren 8a ere hortxe datorkigu, ate joka. Aitzindariak emakumeen eskubideen aldarrikapenean. Eskerrik beroenak M8rako bidea ireki zuten emakume bizkor, iraultzaile, justiziazale haiei. Zorionez, eta tamalez, egunero daukagu M8rako nahikoa arrazoi.

Hamaika arrazoi ditugulako, MUNDUKO EMAKUMEAK LIBRE, PALESTINA BARNE.

GUTUNA

Zer gertatzen da Basoixirekin? Marmotaren eguna

JESUS GALARTZA ZELAIA

Badira lau urte, Altsasuko Udaleko mendi batzordea, Iñigo Villanueva Ceberio Nafarroako Basoa Zaharberritzeko Bulegoko buruarekin eta Sakanako basozainekin bildu ginela.

Bilera horretan azaldu ziguten 2015ean udala ohartarazi zela Basoixin haritz amerikarrarekin zegoen arazoaz, gehienak gaixorik zeudelako eta zuhaitz horiek etengabe eror ez zitezen jardun behar zelako, horrek inguruko pertsona guztiak arriskuan jartzen baitzituen.

Teknikariak 2015ean eta 2020an gomendatzen zuten ekinbidea "azken mozketa edo

matarrasa" zen. Batzorde osoa ados zegoen haritz amerikarra desagerraraztearekin eta bertako espezieekin ordezkatzearrekin.

Bi urte igaro dira mozketa horretatik, eta orain haritz amerikarraren landare berria hazten ari da. Honek duen dentsitate handiak bertako landarea birsortzea eragozten du eta arazo handia sortu du.

Orain arte egin den jarduera bakarra, moztutako eremu batzuen inguruan bertako espezieak pantaila gisa landatzea izan da, horrela, haritz amerikarraren landarearen hazkunde bizkorra ez ikusteko asmoz. Bai, ondo irakurri duzue: haritz amerikarraren hazkunde ezkutetzea, berriz ere, etorkizun hurbil batean arazo bat izango den arte.

Alkatetza taldeak adierazi duenez, arazo horren guztiaren

gakoa basoberritzeak ekarriko lukeen kostu ekonomikoa da. Baina Altsasuko herritarrek ba al dakite udalak baso lanetatik lortutako dirusarreraren % 20, legezko gutxienekoa, baino ez duela berrinbertitzen basoan? Gainera, diru sarrera horietako asko partzela pistak asfaltatzeko erabili dira mendiaren egoera hobetzeko erabili beharrean. Zein arazo ekonomikori buruz ari gara orduan?

Azken batean, baso autoktonoa berreskuratzea bideraizina dela esan digute. Arazo ekonomikoei buruz ari gara edo beste zerbaiti buruz? Arazoa argi dago: utzikeria eta ausardia falta.

Galdera asko dira, eta konponbiderik ez. Zentzugabekeria hutsa da eta gaiari segituan ekiten ez bazaio hasierako lekura itzuliko gara. Marmotaren eguna.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kiorlak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak

Magala gerriratzeagatik trafikoa Olatzagutira

Iparraldeko Autobiako (A-1) magala gerriratu zen eta lurra euste horma bat autobio errei gainera bulkatu zuen. Gobernuak erreia moztu, trafikoa Olatzagutian barna desbideratu eta konponketa lanak egiten hasi da

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Autobiaren Altsasuko noranzko erreian, Olatzagutia parean, hiru euste horma daude. Ziorditik joanda, errotondatik autobia gaineko zubiraino 250 bat metrokoa dago eta Xabierko Frantzisko kalearen paretik hilerriko atearen pareraino 180 bat metrokoa. Bi euste horma horiek porlanezko plantzez eginak daude, Patxi Galanen muralekin. Azken euste horma porlandegiko toberaren oinarriaren aurrean hasi eta Leire kalearen parera artekoa da. 170 metro ditu eta porlanezko pilarez eginda dago. Hain zuen ere hor izan zen lurjauzia. Leire kaleko sei garajeen azpiko magalak gerriratu, lurra beheara egin eta euste horma autobia gaineko erreira bulkatu zuen.

Nafarroako Gobernuak astearteko 10:00etarako autobien erreia hori itxi zuen. Trafikoa 395. irteeratik desbideratu zuen. Hau da, Olatzagutiko Inguraketa kaltetik NA-2410 errepidera. Bi horiek erreia bakarrekoak izanik, Iparraldeko Autobian ibilgailu ilara handiak sortzea eta trafikoa moteltzea ekarri zuen. Olatziarrendako, berriz, denboraren makinan atzera egitea bezalakoa izan zen, berriro ere trafiko handia herritik pasatzen ikusi zutelako.

Aldi berean, langileak magala gerriratu zen tokian arriskua kentzeko lanak hasi zituzten. Leire kaleko etxeak onik daude, baina sei garajeak ez. Guztiak Cementos Portland Valderrivasenak dira. Pala batek garajeak bota zituen. Bitartean, autobia bertatik, beste pala bat lurra kentzen aritu zen, magala egonkortzeko. Lan horiek eginda, segurtasuna erabat bermatuta dagoenean, bypassa egin da trafikoa Olatzagutitik pasa ez dadin. Hau da, Ziordirako bi erreiak bi noranzkoetako trafikoa hartu du atzo arratsaldeaz geroztik. Autobia gainean, herri parean, dagoen informazio seinale handiaren hasi eta Geltoki kalearen parerainokoa da bypassa, 330 metro. Dagoeneko, konponbide teknikoa aztertzen ari da teknikari talde bat.

Altsasuko autobien lotura gunea eta Olatzagutia eta Ziordia arteko A-1 errepidearen desbideratzea eta bikoiztea 1998ko garagarriaren 23a mustu zuten. Nafarroako Gobernuak Ziordian trafikoa zenbartzeko duen neurgailuan egunero 20.721 ibilgailu pasatzen zirela neurtu zuen 2022an. Haietatik, %28,16 kamioiak ziren, hau da, 5.835 kamioi. Trafiko horren erdia herritik pasa da.



Autobia mozteak erretentzioak sortu zituen. Trafikoaren abiadura moteldu zen.



Piezak deskargatzen, bypassa egiteko eta obra babesteko.



Agintariek eta porlandegiko buruak lanak bisitatu zituzten.



Luiziak euste horma bota zuen eta oinarririk gabe gelditu ziren goiko garajeak. Konpontzeko, mugitutako lurra kendu zuten.

EGUN ON SAKANA

egunero 10:00etatik aurrera
goizetako konpainiarik hoberena!



107.3 FM
eta GUAIXE.EUS



Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Gasteizko sarraskia gisa ezagutzen dena izan zenetik 48 urte beteko dira igandean. Data hurbildu ahala gertaera haiek burura etortzen zaizkio Felix Razkin Mendinuetari. Poliziari aurre egiten egon zen martxoaren 3 hartan. Polizien tiroekin lagun bat erortzen ikusi zuen. "Hura ez da nolnahi ahazten", esan digu. Baina gertaeren aurreko urtea ere ezagutzeko modukoa da.

Orain bezala, orduan ere Gasteizen lan egiten zenuen. Non?

Gasteizen bizi eta BH fabrika lan egiten nuen. Sarraskia baino lehen hiriburuko lantegi handietako langileak antolatzen hasi ginen. Lantegi guztiak bat egin eta patronalari eskaera plataforma bat aurkezteko. Zeren ordura arte enpresa bakoitzean egiten zen lan hitzarmena. Gu bildu eta plataforman aldarrikapen ekonomikoez aparte, langileen ordezkariak zirenak arras bota nahi genituen. Orduan Sindicato Verticaleko *enlaces y jurados* delakoak zirelako langileen ordezkariak. Asanbladak aukeratutakoak gure ordezkariak izatea nahi genuen.

Orduan Sindicato Verticala besterik ez zegoen, ezta?

Bai, Francok martxan jarri zuen. Haiek aukeratzen zituztenak aurkezten ziren. Jendeak ez zuen parte hartzen. Urte bat lehenago enpresa handietako ordezkariak biltzen hasi ginen. Oraindik aukeratu gabe geunden, enpresetan pixka bat mugitzen ginenak ginen. Horrela hasi zen.

Zein ziren orduko lan eskaerak?

Emakumezkoek eta gizonezkoek berdin irabaztea, lan beragatik soldata bera jasotzea, orduak jaistea, asanbladetan aukeratu-tako pertsonekin enpresak negoziatioak egitea.

Langile mugimendua, beraz, antolatuta zegoen?

Ordurako klandestinitatean sindikatu batzuk zeuden: CCOO, ELA eta UGT. LAB oraindik ez zegoen. Baina haiek ez zuten ezer antolatzen. Asanbladak aukeratutakoak negoziatzea nahi genuenak, fabriketan mugitzen zen jendea eta ardura hori genuenak, biltzen hasi ginen, beste enpresa batzuekin koordinatzen. Astero egiten genuen bileraren bat, batzuetan basoan, besteetan parrokiaren batean. Horretan 1975ean hasi ginen. Uste dut hamabiren bat enpresa



Felix Razkin Mendinuetari Gasteizko langile mugimenduan buru-belarri sartuta ibili zen. OSATUBERRI

"Atera ahala, tiroka hasi ziren, benetako balak"

FELIX RAZKIN MENDINUETA

Arbizuarra 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko sarraskiaren lekuko izan zen. Gasteizko langile mugimenduan ari zen orduan

bildu ginela, denak "ilegalak". Plataforma egin eta aldarrikapen batzuk egitea erabaki genuen. Denok aldarrikapen plataforma enpresa guztietan egun berean aurkeztea erabaki genuen, eta gurekin negoziatzea eskatu genuen.

Enpresa txikiak langileek ere bere egin zituzten aldarrikapenak?

Bai, babesten zuten.

Aurkeztu eta gero, zer pasa zen?

"ASANBLADAK AUKERATUTAKOAK GURE ORDEZKARIAK IZATEA NAHI GENUEN"

Plataforma aurkeztu genuenok "ilegalak" ginen, ez ginen ez *enlace* eta *jurado*, ez Sindicato Verticalekoak ez ezer. Horien guztiz kontrakoak ginen, hori botatzea nahi genuenak ginen, beste negoziatio mota batzuk eta beste jende batzuk sartzea nahi genituenak ginen. Hasiera batean behintzat, enpresa guztiak ez zuten onartu. Horretarako, enpresetan *enlace* eta *jurado*ak zeudela, eta haiek negoziatu behar zutela esaten zuten. Guk, tematuta, ezetz. Guk geuk deituta, enpresetan plataformaren aldeko asanbladak egiten hasi ginen. Horretarako eskubidea bakarrik *enlace* eta *jurado*ak zuten, Sin-

dicato Verticalekoak. Jendea enpresetan biltzen hasi zen. Orduan "ilegal" geunden guztiok aurpegia eman genuen, jende guztiaren aurrean aurkeztu ginen. Eskaerak aurkeztu genituen. Asanbladetan hasieran jende gutxi zegoen, baina denborarekin enpresa guztia biltzen zen. Aldarrikapen plataforma aurkeztea erabaki genuen. Baina enpresariak ez zuten onartzen

"URTE BAT LEHENAGO ENPRESA HANDIETAKO ORDEZKARIAK BILTZEN HASI GINEN"

guk aurkeztea, gurekin negoziatzea.

Zein izan zen hurrengo pausoa?

Hor urtebeteko bidea egiten genuen: asanbladak egiten enpresetan, asanbladak aukeratutako pertsonekin negoziatu behar zuela eta gu onartzeko enpresarekin borroka... Greba dezente egin genituen, batez ere borroka horretan sartu ginen enpresak, hamar greba-edo bai. Eta emaitzarik ez zegoenez, greba orokorra deitzea, beste biderik ez genuen ikusi.

Nola prestatu zenuen?

Enpresa bakoitzean asanblada bat egin genuen, zuzendaritzarekin gauza nola zegoen aztertu zen: onartzen zigun edo ez. Zaramagako San Frantzisko elizan 18:00etan biltzen ginen. Enpresa bakoitzean zer egin genuen, enpresariak negoziatioak nola zihoazen eta holako enpresari berri ematen genuen. Egunero biltzen ginen. Han koordinatza bat sortu zen. Enpresa bakoitzetik jende guztia manifestazioan eliza horretaraino joaten ginen, borrokan geunden langile guztiok biltzeko eta elkarren berri jakiteko. Polizia gure martxa horiek debekatzeko hasi ziren. Hamar egun izan ziren greba egin genituenak. Joaten ginen, eta izugarriko enfrontamenduak lehendabiziko manifestaziotik. Goraka zihoan dena, errepresioa ere bai, egun osorako greba deitu genuen maiatzaren 3rako. Ordurako zenbait enpresa hasiak zeuden guk aukeratutako jendearekin negoziatioak izaten. Baina ez ginen akordio batera iristen.

Zer erantzun izan zuen zuen deialdiak?

Azkeneko borroka egunean, greba orokorrean, martxoaren 3an, Gasteiz osoa gelditu zen. Goizean fabrika guztiak itxi zituzten. Ondoren, Gasteiz guztia aurrera, dendak-eta ixtera joan ginen. Denek itxi zuten. Goizean bildu ginen denak. Orduan ere polizien kargak izan ziren, gu nora joan haiek tiroka. Eta arratsalderako, beti bezala, 18:00etan. Arratsaldekoa izugarria izan zen.

Bilduta zeundetela agertu ziren.

Bai. San Frantzisko elizan bilduta 2.000 edo 3.000 geunden, ez dakit. Batzuk barruan 5.000 ere egonen ginela esaten dute. Jende asko kanpoan gelditu zen, ezin sartu, ez baitzegoen

tokirik. Ordezkarierien batzordea osatua genuen, oholza gainean geunden, hitz egiteko asmoz. Poliziak eliza erabat inguratu zuen. Asanblada hasi berri zela, poliziak tiroka hasi ziren. Aurrean zuten jendea pixka bat sakabanatu zuten. Jende guztia handik ateratzeko agindua zuten eta leihotatik eliza barrura ke poteak botatzen hasi ziren. Keagatik, jendea atera behar, ezin jasan. Eta atera ahala, tiroka hasi ziren, benetako balak. Beldurra izanzen zen, baina jende guztiak harriak hartu eta beraien aurrera joaten ginen. Jende asko ginelako, behartu genituen furgonetan sartzera. Hala ere, tarte horretan bost lagun hil zituzten. Eta zaurituak ehundik gora. Hildakoak gertukoak ziren, greba guztietan egoten zirenak. Enpresa desbordinetakoak. Gure fabrikan hildakorik ez baina zaurituak bosten bat bai.

Nolako izan zen hileta?

Bost eguneko dolu egun izan ziren. Hildakoen aldeko sekulako hileta egin genuen. Eta orduan agertu ginen estalita geunden ordezkarierien gehienak. Orduan ere bakarren bat atxilotzera joan zen polizia, baina jendea kontra jarri zen. Lortu genuen denak handik onik ateratzea.

Bestelako errepresio modurik izan zen?

Bai, ondoren enpresek gehien mugitu ginenak kaleratu gintuzten. Baina, azkenean, hori ez zuten lortu. Zeren jende guztiak, atzera ere, greba egin zuen kale-ratuak berriz onartzeko eskatuz. Gure fabrikan eta beste batzuetan ere bai. Eta, berriz, onartu gintuzten.

Plataformako eskaerak lortu zenuzuten?

Greban geunden lantegietan hirugarren egunean-edo enpresari guztiak onartu zituzten eskatzen genituen gauza gehienak. Dolu egunak pasa ondoren lanean hasi ginen. Hortik aurrera gure aldarrikapen nagusia onartu zuten: gure ordezkarierien asanbladak aukeratutako jendea izatea. Eta Sindicato Verticaleko ordezkarierien kanporatzea ere

"ASTERO EGITEN GENUEN BILERAREN BAT, BATZUETAN BASOAN, BESTEETAN PARROKIAREN BATEAN"

onartu zuten. Pauso hori Espainiako Gobernuak eman zuen. Eta orduan hainbat sindikatu legezatu zituzten.

Bost hildako eta ehundik gora zauritu. Bakarren batek horregatik pagatu zuen?

Ez, ez, ez. Martxoak 3 koordinakundeasortu genuen. Eta bilatzen genuen gauzetako bat hori zen: masakre horren arduradunak epaitzea eta holakoak. Ez genuen lortu.

Arduradunek badute izenik?

Bai. Bat Rodolfo Martin Villa zen (Sindikatuetik Erlazioetako ministroa). Baita Manuel Fraga Iribarne (Gobernazioko ministroa). Fraga PP aurreko Alianza Popularreko burua izan zen. Haien epaitzea nahi genuen, baina ez genuen ezer lortu. Azkenak, orain urte asko ez dela, Argentinako Gabriela Servini epaileak Martin Villa epaitu nahi zuen. Jakina, ez zen Argentinara joan.

1976ko gertaera horiek Gasteizen memorian daude?

Bai. Urtero martxoaren 3an kontzentrazioa eta manifestazioa egiten ditugu. Gero ere badaukagu Martxoaren 3ko plataforma. Ni ez nago barruan, baina egon ziren nire lagun asko bai. Hori osatzen dute parte hartze nabarmena izandakoak, zaurituak eta erail zituztenen senideak.

Zerbait eginen da eliza horretan?

Bai, lortu da. Orain dela gutxi akordio batera iritsi dira eliza hori museo bezala jartzeko. Memoria kontua da. Historia memoriaren kontu horrekin hasi zirenean Espainian eta Euskadin guk ere nahi genuen gure alor hori memoria horretan agertzea: martxoaren 3ko sarraskiaren memoria. Azkeneko urteotan horretara bideratuta daude boroa guztiak.

Bargazpi kudeatzeko deialdia egin da

Ostalaritza azpiegitura zabalik dago, baina gestioaren lagapen epea despeditzear da, eta, legeari jarraituz, Lizarragako Kontzejuak haren kudeaketa emateko deialdi berria egin du

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuak Bargazpi Etxea taberna-jatetxearen kudeaketa bost urterako eman zuen kontzejuak. Epe hori aurten despeditzen da, eta legeari jarraituz Lizarragako Kontzejuak haren kudeaketa emateko deialdi egitera behartuta dago. Deialdiaren interesa duenak dokumentazioa eta negozio ereduaren proposamena apirilaren 5eko 14:00etarako aurkeztu beharko du Ergoienako udaletxean.

Proposamenean azaldu beharko da taberna-jatetxe zerbitzua eskaintzeko modua, sukaldemota, egutegia eta irekiera-ordutegia, hura eramango duen pertsona taldea eta dinamizatzeko erabiliko diren jarduerak. Bestalde, kontzejuak oraingoan gestioa hiru urterako eman nahi du. Beste bi urtez luzatu daitezke kontratua kudeatzaileak alde aurretik kontzejuari hala eskatzen badiu, eta hura ados badago. Interesa duenak ostalaritzako lanetan gutxienez bi urteko esperientzia erakutsi beharko du, bai bere kontura, bai besteren kontura.

Hartzen duenak urtero lau egunetan jan-edanak eman beharko ditu: San Adrian festetako astelehenean udalbatzari afaria ematea, Arleze egunean mendian



Taberna-jatetxea 2019ko garagarriaren 9an mustu zen. ARTXIBOA

eginen den gosaria prestatzea, San Klemente festetako jubilatuen bazkaria eta auzolan batean parte hartzen dutenendako bazkaria egitea. Egundako bakoitzeko pertsona kopurua eta plater bakoitzaren balioa zehaztuta dago deialdian.

Horrekin batera, kudeatzaileak urtean bitan kultura jarduerak antolatuta beharko ditu. Horren truke jasoko du kudeaketa, inolako dirurik ordaindu behar izan gabe. Udalaren deialdiaren berri ergoiena.eus webgunean dago.

LAN ESKAINTZA

ANDRA MARI IKASTOLA

Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak ordezkapen bat egin eta lan poltsa osatzeko behar hau dauka:

DBHko GAZTELERA ETA GIZARTE IRAKASLEA

- Eskatzen da:
 - Humanitatean, Gizarte Zientzietan edo Artean gradua.
 - DBHn aritzeko masterra edo baliokidea.
 - CI euskara edo baliokidea.
- Eskaintzen da:
 - Jardunaldi osoko ordezkapena eta lan poltsan sartzea.

Curriculumak web orrialdera igo: www.andramariikastola.eus / Lan Poltsa EPEA: MARTXOAREN 10era ARTE

Zalantzen bat izanez gero, gurekin harremanetan jarri (zuzendaria@andramariikastola.eus)

ZUREA, GUREA, DENONAI

ATE IREKIAK

ARBIZU: martxoak 5, 09:30

ETXARRI: martxoak 7, 09:30

Hitzordu pertsonalizatuak hartzeko aukera

948 460 286

etxarri@kastola.eus

ANDRA MARI IKASTOLA

"Emakume langileok zapalduak jarraitzen dugu"

AITZIBER AGIRRE ETA IRATI BEGIRISTAIN SAKANAKO ITAIKO KIDEAK
Ate joka dauden martxoaren 8ko mobilizazioak borrokara batzeko aukera paregabatzat dituzte, eta Itaiaren deialdietan parte hartzera deitu dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunerako Itaiak *Emakume langileok borrokara!* Sozialismoa eraiki leloa aukeratu du. Martxoaren 8an, 18:00etan, Lakuntzako plazan eta, 19:00etan, Altsasuko Foru plazan egingen diren mobilizazioetan parte hartzera deitu dute.

Labur bada ere, emakumezkoen egoeraren zein analisi egiten duzue?

A. Lege aldaketak, zenbait interbentzio pedagogiko, gutxietsitako hainbat identitateen lege aitortza... Egia da emakumeok eskubide formal ugari lortu ditugula eta gure bizimodua zeharo aldatu dela hamarkada batzuk atzerago zegoenarekin konparatuta. Gaur gaurkoz, edozeinek pentsa lezake gauzak jada konpondu egin direla. Gizartearen hainbat sektoretan feminizazio prozesu bat egon da, orain emakumeak daude instituzio zein enpresetan. Baina horrek zer onura ekarri ditu benetan emakumeon gehiengoarentzat?

Geroz eta gizarte aurrerakoia goan bizi garela sinestarazi nahi diguten arren, emakume langileon errealitatea guztiz bestelakoa da. Izan ere, emakume langileok zapalduak izaten jarraitzen dugu eta hamaika dira geure errealitatea ezaugarritzen duten adibideak, besteak beste, indarkeria matxistaren normalizazioa, gure gorputzen objektibizazioa, etxeko zaintza lanen zama, lan baldintza kaxkarrak, egiturazko langabezia...

Zergatik diozue emakumezkoak 2. mailako subjektuak zaretela?

I. Aberastasuna ekoiztea xede duen gizarte honetan eta krisi testuinguru bete-betean, inoiz baino modu gordingaragoan azaleratzen da klase gizartearen funtzionamendua, hots, ongizate unibertsalari gailentzen zaion kapitalaren metaketa. Egoera hau ez dugu emakume guztiok modu berean bizitzen, kapitalis-



Irati Begiristain Garcia eta Aitziber Agirre Martinez de Icaya, Itaiako kideak. UTZITAKOIA

"EMAKUMEOK GARA GIZARTETIK BAZTERTUAK ETA ESTIGMATIZATUAK GARENAK"

moak subjektu debalutuak behar dituelako irabazi ekonomikoak metatzen jarraitzeko. Emakume langileon kontrako esplotazio basatiaren kontura, enpresariet beraien poltsikoak betetzen dituzte, geure egoera zaurgarria betiketuz. Horren adibide da ahalik eta esku-lan merkeena izatea, soldata miserableak, ordaindu gabeko orduak, lan ordu gehigarriak, kaleratzeak...

Baina kapitalismoa egitura ekonomiko hutsa ez den heinean eta bizitzako esfera guztiak zeharkatzen dituen heinean, emakumezko langileok ez gaude soilik ekonomikoki azpiratuak; politikoki, kulturalki eta sozialki ere zapalduak gaude. Izaera hau etengabe erreproduzitzen eta normalizatzen da, besteak beste, industria kultural matxistaren, erasotzaileen zigorgabetasunaren edota erasotutako emakumeon baldintza material eta sozial ezaren bidez.

Jendartea horretaz jabetuta dago?

A. Indarkeria matxistari erreparatzen badiogu, esan genezake egungo errealitertera egokitu dela, forma berriak hartu dituela: ezkutukoak, isilpekoak.

Plataforma digitalen zabalpen eta irisgarritasunaren eraginez, biolentzia aurpegi berriak sortu, areagotu eta normalizatu egin dira, aipagarria, gazte sektorean. Alegia, datuek diotenez, gazteen %80k indarkeria matxista jasan du plataforma digitalen bidez.

Bestetik, gizartearen ideia erreazionarioak zabaldu dira, instituzio, parlamentu, baita kale mailan ere. Geroz eta ohikoagoak bihurtu dira kolektibo zapalduen kontrako mezu misogino eta erasoak edota emakume langileon zapalkuntza asmakizun hutsa den ideia. Honek guztiak emakumeok bigarren mailako subjektu garela ukatzea ekarri du, hain zuzen ere, bost gaztetik batek indarkeria matxista ukatzen baitu (ukapena = normalizazioa).

Eta erakundeek?

I. Gaietan esku hartzeko asmoz zenbait lege eta proposamen martxan jarri diren arren, egiturazko auzi baten aurrean gaudela jakinik, muga askorekin topo egitea begi bistakoa da. Gobernu politikak eta sistema legalak ez dute inondik inora helburutzat esplotazio eta zapalkuntzekin bukatzea, baizik eta klase harremanak dakartzan dominazio forma oro kudeatzea. Gestio hori, noski, ez dago gaitasun ekonomikoetatik salbu, eta beraz, politika horien finantzaketa da legeen norabidea zehaztuko duena. Hala, ikusi dugu instituzio eta alderdi profesionalek proposaturiko neurriek arazoari aterabidea emateko duten ezintasuna agerikoa dela eta ez dutela emakume langileon beharrezko erantzuteko inolako gaitasunik. Are gehiago, emakumeok gara gizartetik baztertutak eta estigmatizatuak garenak: etxebizitzatik kanporatuak, babes neurriekin itota, kalean seinatuak... Aipatzekoa da hiru gaztetik batek indarkeria matxista sailhestezina dela pentsatzen duela.

Martxoaren 8an zer aldarrikatuko duzue?

A. Egoera honen aurrean, inoiz baino premiazkoagoa da emakume langileon interesak erdigunean jarriko dituen indar politiko independente baten hautua egitea. Emakume langileon zapalkuntzarekin amaitzeko oinarriak jarriko dituen gizarte sozialista eraiki behar dugu, eta norabide horretan mobilizatzeko eta kaleak hartzeko deia egin nahi dugu.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Ibarreko udalen batzarren gai ordenean Emakumearen Nazioarteko Eguneko erakunde adierazpena onartzeko puntua dago. Dagoeneko Altsasuko Udalak otsailaren 28an onartu zuen adierazpen hori, *Isilarazi matxismoa* izeneko kanpainaren parte dena. Hartan udalek manosferaren kontra, hau da, matxismo digitalen kontra egiten dute. Toki erakundeek aitortu dutenez, "feminismoak ibilbide luzea egin du mugimendu sozial eta politiko gisa. Feminismoa ezagutza zientifikoa ere bada, sistema patriarkalari eusten dioten elementuak teorizatu eta kontzeptualizatzeko azterketa eta analisi ibilbide luze batekin".

Hala ere, udalek azaldu dutenez, "mugimendu feministaren lorpen bakoitzak beti izan du erreazio matxista bat, kontrako erantzun bat, ezarritako ordena sozialari eustea defendatzeko eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun harremanak ezabatuko dituen benetako eraldaketa soziala sailheste". Udalaren adierazpenak nabarmendu duenez, "erreazio hori bereziki nabarmena izan da azken urteetan, batez ere aldarrikapen feministak agenda politikoan sartu direnetik".

Manosfera

Informazioaren teknologiek eta ingurune digitek sortutako esparru batzuetan "erreferente edota programa feministen eta berdintasun arloko edozein aurrerapen edo lorpenen kontrako eraso antolatutak eta deskalifikazioak sustatzen" direla gaztigatu dute udalek. "Feminismoaren eta emakumezkoen kontrako gorroto diskurtsoa Interneten espazioak hartzen ari da". Udalek gaineratu dutenez, "inguru horretan antolatzen da matxismoa eta bertatik hedatzen dira mezu anti-feminista eta misoginoak. Gurean, Manosferako talde edo azpikultura bereizgarrienak dira: gizonezkoen eskubideen aldeko elkarte edo taldeak, sedukzioaren guruak, influencer eta eduki sortzaile antifeministak, foroak, incelak..."

Udal adierazpenean jaso denez, "matxismoa digitala batez ere gazteengan eragina duen komunikazio eta harreman modu berria da. Ideiak eta interpretazioak azkar eta berehala hedatzen dira, eta mezuak etengabe sortzen dira, zehaztasunik eta inolako analisi



Manosferako mezuak pantailetatik harago zabaldu dira. ARTXIBOA

Matxismo digitalarekin kezkatuta daude udalak

Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpenean 'manosfera' delakoa salatu dute. Izan ere, Internet eta sare sozialen bidez, besteak beste, genero rolak betetzen jarraitzea, gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdinkeriak zalantzan jarri edo ukatzen direlako

edo eztabaida kritikorik gabe, horiek indartzen dituzten daturik edo ebidentziarik gabe". Udalen iritziz, "maskulinitate tradizionalaren eredu batetik xede duten gezurren eta *fake news* delakoen garaian bizi gara". Adierazpenean jasotakoaren arabera, maskulinitate eredu horren ezagarrak lirateke: gizonezkoek eta emakumezkoek ezarritako genero rolak betetzen jarraitzea sustatzea; desberdinkeriak zalantzan jartzea; emakumezkoek gizonezkoak menderatu nahi dituztela iradokitzea; sexu indarkeria hutsaldu edo emakumezkoen kontrako indarkeria existitzen dela ukatzea; emakumezkoen askatasuna behin eta berriz zalantzan jartzea... Udalek kezka azaldu dute, mezu horiek pantailetatik erakundeetara ere salto egin dutelako: "aurrerapen berrien lorpena zailtzen dute, dagoeneko

adostasun soziala zuten eztabaidak berriz ere zalantzan jarritz".

Deserosoa

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira onartutako adierazpenean, udalek nabarmendu dutenez, "berdintasuna deserosoa da bizi dugun gizartea birpentsatzera eta modu kritikoa aztertzerara behartzen gaituelako. Ikasitakoa etengabe zalantzan jartzen du pertsonen askatasunez eta baldintzatzailek gabe erabaki dezaketenean eredu berriak eraikitzeke". Aldi berean, gogorarazi dutenez, "feminismoak,

"FEMINISMOAREN KONTRAKO GORROTO DISKURTSOA INTERNETEN ESPAZIOAK HARTZEN ARI DA"

historian zehar emakumezkoen ahalduzkoa bultzatu eta gizarte aldaketa handiak lortu ditu, oso kritikoa da ere maskulinitate hegemonikoarekin (tradizionala), eta hainbat hamarkada daramatza gizonezkoak interpelatzeko". Udalen iritziz, "zuzeneko interpelazio horrek beldurra eta aldaketarekiko erresistentziak eragiten ditu gelditasunean eroso dauden gizarte sektore batzuetan". Horregatik udalek diote manosferak "bere burua zalantzan jartzeko eta aldatzeko beharrik ez duten espazio bat eskaintzen" diela hainbati, "arrakalutako maskulinitatea lehenertzeko aukera ematen diena".

Aldi berean, udalek nabarmendu dutenez, "Internet eztabaida publikoa polarizatu eta zigorgabetasuna errazten duen etsaitasunezko toki bihurtzen duen diskurtso horren aurrean, beha-

rezkoa da emakumezkoek lortutako eskubideak finkatzea bermatzen duten berdintasun politikak sustatzen jarraitzea, eztabaida publikoa errespetutik egitea sustatzea, agenda politikoan desberdinkeriak agerian utziz, aurrera egiten jarraitzeko".

Konpromisoak

Martxoaren 8a dela eta, udalek "agerian utzi nahi dugu berdintasun politika publikoek eta feminismoak duten balioa, gizarte mugimendu eta mugimendu teoriko eta politiko gisa, emakumeek eta gizonek eskubide berak dituzten berdintasunezko gizarte libre baterantz aurrera egiteko". Toki erakundeek "benetako berdintasunerantz aurrera egiteko" beharra aldarrikatzearekin batera, konpromisoak hartu dituzte.

Batetik, toki erakundeek "emakumezkoen eta gizonezkoen

arteko berdintasuna sustatzen" jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Beti ere, "gure esku hartze eremuan politika publikoen bitartez eta udal arau, plan eta proiektu guztietan genero ikuspegia txertatuta". Horrekin batera, udalek "gure testuinguruan azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzeko" konpromisoa hartu dute, "pertsonen bizitzako esparru eta etapa guztietan dauden desberdinkeriak ikus arazteko". Horrekin batera, "mugimendu feministaren ekarpenak eta lana" aitortu dute, "bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko, erakundeekin hitz egiteko guneak sortuz". Azkenik, "adin guztietako gizonezkoekin esku hartzea bulkatzeko" konpromisoa hartu dute, "berdintasunezko maskulinitate ereduaren erakuntza sustatzeko".

PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Eibarri Aranatz:
948 460 988

EGITARAUAK

IRURTZUN

MARTXOAK 3 Igandea

16:00 Kafe solasaldia, kultur etxean.

Eguneroko indarkeria matxistak kafe solasaldia: hausnarketa eta Mirentxuren eta Estherren eskutik clown emanaldia. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldiak, Irurtzongo Emakume taldeak, Irurtzongo kultur kontseiluak eta udalak antolatuta.

18:30 Antzerkia, kultur etxean.

Kuku ezkutuan dauden emakumeak familiarreko ikuskizuna, euskaraz. Emakumeari buruzko XXXI.

Jardunaldiak, Irurtzongo Emakume taldeak, Irurtzongo kultur kontseiluak eta udalak antolatuta.

MARTXOAK 6 Asteazkena

18:00 Zinemara ateraldia, Foru plazan.

MARTXOAK 8 Ostirala

19:00 Elkarretaratzea, Foru plazan.

Isilarazi matxismoa elkarretaratzea. Ondoren, poteoa. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldiak, Irurtzongo Emakume taldeak, Irurtzongo kultur kontseiluak eta udalak antolatuta.

MARTXOAK 10 Igandea

19:00 Ipuin musikala, frontoian.

Mainaimikiri ipuin musikala Haize Berriak Bandarekin, Eva Azpilikueta aktorearekin eta Dantzarima dantza taldearekin. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldiak, Irurtzongo Emakume taldeak, Irurtzongo kultur kontseiluak eta udalak antolatuta. Sarrerak: 0 eta 3 urte, doan; 3 eta 14 urte, 6 euro; gainontzekoak, 8 euro.

MARTXOAK 16 Larunbata

18:00 Ipuin kontalaria, Pikuxarreko Ganbaran..

Nire hegoak eta biok ipuin kontaketa, Pikuxarreko antolatuta. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldien barruan. 21:30 Afarria eta antzerkia, Pikuxarren. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldien barruan.

UHARTE ARAKIL

MARTXOAK 8 Ostirala

14:00 Bazkaria.

17:00 Dokumentala eta solasaldia

19:00 Kontzentrazioa, plazan.

Gure bizitzekin negoziarik ez! kontzentrazioa, Mugimendu feministak antolatuta.

20:00 Denok Altsasura!

LAKUNTZA

MARTXOAK 1 Ostirala

18:00 Hitzaldia, kultur etxean.

Indarkeria matxistaren aurpegi berriak hitzaldia, Sakanako Itaiak antolatuta.

MARTXOAK 8 Ostirala

18:00 Mobilizazioa, plazan.

Martxoaren 8aren Emakumeen Eguneko Sakanako Itaiak deitutako mobilizazioa.

19:00 Elkarretaratzea, plazan.

Gure bizitzekin negoziarik ez! kontzentrazioa, Mugimendu feministak antolatuta.

ARBIZU

MARTXOAK 8 Ostirala

19:00 Kontzentrazioa, plazan.

Gure bizitzekin negoziarik ez! Mugimendu feministak deitutako kontzentrazioa.

MARTXOAK 17 Igandea

18:00 Bakarrizketa, udaletxeko areto nagusian.

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren ZtandP bakarrizketaren emanaldia.

ETXARRI ARANATZ

MARTXOAK 1 Ostirala

19:00 Film dokumentalaren emanaldia, kultur etxearen bideo gelan.

Derechos humanos de las humanas Entreamigos-Lagun Artean erakundearen film dokumentalaren emanaldia, Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.

MARTXOAK 8 Ostirala

12:00 Kontzentrazioa, plazan.

Emakumeen Nazioarteko eguneko elkarretaratzea, Etxarri Aranazko Udalak deituta.

MARTXOAK 10 Igandea

12:00 Txokolila.

Berdintasunean hezteko gunea: tailerrak haur eta gazteendako, Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.

ITURMENDI

MARTXOAK 1 Ostirala

18:30 Hitzaldia, udaletxean.

Maria Castejon Historia Doktoarearen Film borrokak hitzaldia, Iturmendiko Udalak antolatuta.

MARTXOAK 8 Ostirala

19:00 Elkarretaratzea, plazan.

Gure bizitzekin negoziarik ez! kontzentrazioa, Mugimendu feministak deitutako kontzentrazioa.

URDIAN

MARTXOAK 8 Ostirala

19:00 Elkarretaratzea, plazan.

Gure bizitzekin negoziarik ez! kontzentrazioa, Mugimendu feministak deitutako kontzentrazioa.

ALTSASU

MARTXOAK 1 Ostirala

18:00 Gazte agenda, Intxostiapunta gazte gunean. Martxoaren 8rako Emakumeen Nazioarteko Egunerako pankarta margoketa.

MARTXOAK 5 Asteartea

18:30 Kontzertua, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan.

Berdintasunaren Aldeko Kontzertua Altsasuko Dantza eta Musika Eskolaren kontzertua, Dantza eta Musika Eskolak antolatuta. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan.

MARTXOAK 8 Ostirala

19:00 Mobilizazioa, Foru plazan.

Martxoaren 8aren Emakume Langileen Eguneko Sakanako Itaiak deitutako mobilizazioa. 20:00 Manifestazioa, Iortia zabalguneko estalpetik. Gure bizitzekin negoziarik ez! Sakanako Mugimendu feministak deitutako manifestazioa.

MARTXOAK 9 larunbata

18:00 Gazte agenda,



ARTXIBOIA

IRURTZUN Irurtzongo pintura tailerraren erakusketa. Emakumeari buruzko XXXI. Jardunaldiak, Irurtzongo Emakume taldeak, Irurtzongo kultur kontseiluak eta udalak antolatuta.

Martxoaren 1etik 31ra, La Tahonan eta Pikuxarren.



UTZITAKOIA

ETXARRI ARANATZ erakusketa, Etxarri Aranazko Udalak antolatuta. Martxoaren 1etik 31ra, liburutegian.

Intxostiapunta gazte gunean.

Nor da nor? Jokoaren martxoaren 8ko bertsioa.

MARTXOAK 13 Asteazkena

18:00 Hitzaldia, Iortia kultur gunean.

Indarkeria bikarioari buruzko hitzaldia Sortzen Aholkularitzako Norma Vazquez Garciarekin. Gaztelaniaz. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan.

MARTXOAK 15 Ostirala

18:00 Hitzaldia, Iortia kultur gunean.

Indarkeria estetikoei buruzko hitzaldia, Berheziren eskutik, Gazteria Zerbitzuak antolatuta Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren

Isilarazi matxismoa programaren barruan. Euskaraz.

MARTXOAK 18 Astelehena

19:00 Pelikula, Iortia kultur gunean.

Dona, Vostè no té res! Pelikularen aurkezpena, Filmoteka Nafarroan zikloaren barruan, ADItecheko Marxua Arana Remírezen solasaldiarekin. Kultur zerbitzuak antolatuta, Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan.

MARTXOAK 19 Asteartea

18:00 Solasaldia, Iortia kultur gunean.

Feminismoa irakurgai literatura solasaldia: Naia Carlos Mendiorozen El coste de vivir. Berdintasun zerbitzuak

eta Altsasuko liburutegiak antolatuta, Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan. Gaztelania. 18:00etan, lortia kultur gunean.

MARTXOAK 20 Asteazkena

18:30 Solasaldia, lortia kultur gunean.

Literatura Geraldia solasaldia: Arantxa Urretabizkaiaren *Azken etxea*. Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Berdintasun zerbitzuek antolatutako Literatura Geraldia programaren barruan, eta Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan. Euskaraz.

MARTXOAK 22 Ostirala

19:00 Bakarrizketa, lortia kultur gunean.

Ane Lindaneren bakarrizketa. Euskaraz eta gaztelaniaz. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan.

MARTXOAK 24 Igandea

12:00 Kontzertua, lortia kultur gunean.

Irati Bilbaoren kontzertua, Altsasuko Musika eta Dantza eskolak antolatuta, Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuaren Isilarazi matxismoa programaren barruan.

12:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI

MARTXOAK 2 Larunbata

11:00-13:00 Tailerra, kultur etxean.

Aurpegi zainketak Ana Imazekin: pertsona bakoitzak aurpegioko tratamendu osoa egiten ikasiko du modu erraz eta dibertigarrian, bere eguneroko errutinara gehitu ahal izateko. Izena ematea: 20 euro (16 euro produktuetarako eta 4 euro tailerra).

19:00 Antzerkia, kultur etxean.

Los monólogos de la vagina antzezlanaren emanaldia, Ainhoa Etxebarria, Itziar Urretabizkaia eta Intza Alkain aktoreekin. 200 emakume baino gehiagori egindako elkarrizketetan oinarritutako antzezlan, helburua emakumeak euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea da. Sarrerak: alde zurretik 6 euro; egunean bertan 8 euro. Olaztiko Udalak martxoaren 8aren harira antolatutako antzerkia.

Musika eskolako ikasleak kultur etxean

Irurtzungo Udalak musika eskola zaharberritzeko eta igogailua berritzeko lanak martxan jarri ditu

IRURTZUN

Otsailaren hasieraz geroztik Irurtzungo kultur etxea udal musika eskolaren egoitza bihurtu da. Bi eraikinak elkarren kontra daudenez, ikasle eta irakasleek ohiko norabidean egin beharko dituzte pausoak. Hala izan beharko du ikasturtea despeditu arte. Izan ere, lanak egiteko sei hilabete beharko dituzte langileek, garilera arte. Hori bai, ikasturte berriarekin 132 musika ikasleek eta dozena bat irakasleek musika eskola guztiz berritua izanen dute.

Irurtzungo Udalak eraikinean energia kontsumoa murriztu eta irisgarria bihurtu nahi du. Azken horretarako sarreran arranpa egin, igogailu berria jarri eta komun irisgarriak egin eta haien eta geletako sarbideak aldatuko ditu. Bestalde, teilatutik amiantozko elementuak kendu ondoren, han eta kanpoko paretetan isolatzaileak jarriko dira. Bigarren solairuan sabai aizuna jarriko da. Teilatuen hegoaldeko aldean 60 eguzki plaka jarriko dira. Musika eskolako argi guztiak LED argiekin ordezkaturiko dituzte. Lanak Inserlantxo enpresa egiten ari da eta obraren truke 282.480,76 euro (BEZik gabe) jasoko ditu.

Irañetako ur biltegiko lana udaberrian egingen dute

Iragazpen sistema jarriko dute. Bestalde, udaletxe zaharra berritzeko laguntza jasotzeko zain dago udala

IRAÑETA

Irintarrek 2020tik ur biltegi berria dute, behar besteko gaitasuna duena eta araudia betetzen duena. Azken hori zorrotz betetzeko iragazpen sistema jartzea falta da. Horrek ura etxeetara



"Nafarroa defendatu" manifestua sustatu duten alkateen artean Altsasukoa dago, Javier Olló Martínez. UTZITAKOA

Autogobernuaren aldeko erantzun "irmoa" eske

Espainiako Auzitegi Gorenak trafikoaren eskumena Nafarroari transferitzea baliogabetu ondoren egin dute eskaera. "Nafarroak politika publikoak garatzeko duen gaitasuna dago jokoan" uste dute. Iruñean elkarretaratzea deitu dute

SAKANA

Madriren dagoen epaitegi batek, Espainiako Auzitegi Gorenak, Espainiako Gobernuak Nafarroakoari trafikoaren eskumenaren transferentzia baliogabetu zuen otsailaren 15ean. Nafarroako hamar herritako alkateek, tartean Altsasuko Javier Olló Martínez, epaiari kritika egin diote. Hamar alkateek agerraldi bateratua egin zuten otsailaren 24an. Prentsaurreko horretan Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren "garrantzi politiko handia" nabarmendu dute. "Horren aurrean argi eta garbi diogu ez gaudela ados. Nafarroaren borondate politikoaren, haren erakundeen,

foruen eta autogobernu esparruaren kontrako erasotzat jotzen dugu".

Hamar udal agintariak nabarmendu dutenez, "Nafarroaren eskumen historikoak ezin dira nafarren borondate politiko demokratikotik kanpoko tresnen menpe egon, ezta dinamika birzentralizatzaileei erantzun ere". Alkateek gazitatu dutenez, "ez da autogobernuak jasaten duen lehenengo atzerakada, eta erantzun jarrera irmoa hartu behar da egoera hori berriro gerta ez dadin. Nafarroarekiko errespetua eta autogobernatzeko gaitasuna" aldarrikatu dituzte. Azkenik, ziurtatu dutenez, "gure

bizitzetan eragin zuzena duten politika publikoak garatzeko Nafarroak duen gaitasuna da jokoan dagoena".

Hamar alkateek Nafarroako gainontzeko alkateak eta nafarrak gonbidatu dituzte martxoaren 2an, larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Sarasate pasealekuan egingen den elkarretaratzean parte hartzera. Deialdiak eta *Nafarroa defendatu* manifestuak ehundik gora alkateren atxikimendua jaso du. Horien artean dozena bat sakandar daude oraingoz: Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakai-ku, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Lakuntza, Olatzagutia, Uharteko Arakil, Urdaia eta Ziordiko alkateak.

tea", azaldu du Iñaki Arangoa Zia alkateak.

Udalak, bestalde, udaletxe zaharra berritzeko dirulaguntza jaso zuen. Udal eraikina zaharberritu nahi dute erabilera soziokulturalerako bideratzeko. Horretarako, 176.108,46 euroko proiektua du esku artean. Horietatik udalak 9.982,50 euro jarriko ditu. "Lanak aurten egin behar dira. Dirulaguntza jasoko dugu, baina baieztapenaren zain gaude", jakinarazi du alkateak.



"AHT ez den tren guztia hiltzen utzi dute"

ERNESTO REYES LARA SINDICATO FERROVIARIO INTERSINDICALEKO KIDEA
Sindikatuako Euskadiko arduraduna, urtetan eta orain gutxira arte Nafarroako Adifeko enpresa batzordeko kide izana, lau hamarkadako eskarmentua du pilatuta

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Araba Trenaren Alde, Goierriko AHTrik Ez eta Nafarroa Trenaren Alde plataformek antolatuta, *Trenbidearen defentsan eta AH-Taren txikizioa gelditzeko* jardunaldiak izan ziren asteburuan. Bertan izan ziren tren sektoreko langileek zerbitzuaren desegitearen hasiera XX. mendeko 80 hamarkadaren erdialdean kokatu zuten. 1985ko ilbeltzaren 1ean 2.000 trenbide km itxi ziren. Beste mila hilabete batzuk geroago.

Ikusten zuten eraispenari buelta emateko, tren sektoreko sindikatuek proposamena aurkeztu zuten garai hartan. Probintzia hiriburu guztiak lotzea zuen helburu, 180 edo 200 km orduko abiadura, trenbide bikoitz elektrifikatuen bidez, eta beste. Gobernuak erabaki zuen Madril eta Sevilla arteko abiadura handiko linea egitea, eta sindikatuen proposamenak hondoa jo zuen. Tren langileek gogoratu zuten, ordurako eraikuntza enpresak Abiadura Handiko Trena (AHT) eraikitzekeo presioa egiten ari ziren. Europako hainbat gobernu ere presio egin zuten, beraien enpresak hornituko baitzuten AHT (Alemaniako Siemens eta Frantziako Alston). "Orduan ohiko trena garaitu zuten, gizar-te eztabaida lapurtuz". Sindikatuen proposamenaren aurrekontuaren pareko diru kopurua bideratu zuten Madril eta Sevilla arteko AHTra. Tren azkarrarekin eskualde trenen eraispena azkartu zela nabarmendu zuten.

Duela 40 urte Renfek 70.000 langile zituen estatuan. Hura bitan banatu zuten: Renfe (ga-

rraioa) eta Adif (azpiegitura). Bien artean 19.000 bat langile izanen dituzte gaur egun. Teknologiaren aurrerapenarekin lanpostu asko desagertu dira. Ekonomia eta antolakuntza arazoekin batera, eta azpikontratazioa izan da langileen murrizketarako argudioa. Horregatik, Ernesto Reyes Lararendako beharrezkoak dira antolatu diren moduko jardunaldiak, jendea informatzeko eta estatuari, Adifi, Renferi presioa egiten segitzeko, kezka adierazteko eta gauzak egin daitezkeela jakinarazteko.

Tren sektorearen zein ikuspegi duzu?

Duela hogeit bat urte trena pitteka uzten joan ziren, interes faltagatik eta politika estrategia-gatik. Inbertsio gehiena errepede edo aireportutarako izan da, eta trenaren kasuan abiadura handirako. Bitartean ohiko trenak funtziona ez zezan utzi dute. Trena ekologikoa izateaz aparte, egituratzailea da. Esaterako, Nafarroan bakarrik hogeit tren geltoki itxi zituzten duela urte batzuk. Haietan ez da trenik gelditzen, ez du jendeak lan egiten. Ez dute mantentzen, ez dute inbertitzen eta, ondoren, ardura-dunek hori guztia "ekonomia galerekin" mozorrotzen dute. Lehen funtzionatzen zuen. Inbertsioa behar da, eta publiko izaten jarraitzea. Zeren publikoa, mundu guztiari iristen zaio, errentagarria ez bada ere. Jakina, Sakanan Gipuzkoan adina aldiriko tren ez ditugu jarriko. Baina gauzak zentzuz egin daitezke. Gutxienez, aukera eman

behar da. Gauza bera merkanztziekin.

Sakanan langileak bakarrik Altsasun daude?

Hala da. Lehen, esaterako, Uhart Arakilen eta Etxarri Aranazko tren geltokian eguneko 24 ordutan lan egiten zuten. Altsasun bi sektoreen edo zerbitzuren hondarrak gelditzen dira. Elektrifikazioko desagertu egin da, ez dago inor; haiek katenaria konpontzeaz arduratzen dira. Segurtasun instalazio sektoreko langileak Gasteizera eraman dituzte. Trenbide eta obretako bi langile gelditzen dira, 60 urte ingurukoak. Katigamendu zerbitzuko bi langile daude, jubilatzen diren arte. Haiek trenbideak dauden dispositiboen funtzionamendu egokiaz, mekanikaz, arduratzen dira. Zerbitzu hori osorik kendu nahi dute estatuan.

Lanpostuak betetzeko plazarik ez dituzte ateratzen, bakarrik arduradunei interesatzen zaizkienak. Altsasura ez da inor etorriko, eta denbora pasatzen denean, itxi egingen dute. Ondoren enpresa batzordeetako bileretan esaten dute: "jenderik ez dagoenez..." Ez da langilerik ez dagoela. Ez dute langilerik sartu nahi izan. Eginez eta deseginez, baseak bateratzen ari dira, eta lanpostuak kentzen ari dira. Trenbideetako langilearen kontzeptuan daude lana ulertzeko modua, lankideekin dauden harremanak eta beste. Orain makina bat enpresa txiki daude. Langileak profesionalak dira, baina lan txiki horiek egiten dituzte, eta kitto.

Zenbat langile daude Altsasun?

Zirkulazioko sektorean, trenen sarrera eta irteerez arduratzen direnak. Lau langile daude. Adifeko beste lau daude. Guztia azpikontratatu nahi dute. Noizean behin jende pixka bat sartzen dute, apur bat mantentzeko. Baina zerbitzu gehienak azpikontratatuak dira. Altsasun halako enpresa bateko langileak daude. Jakina, ez dute ez Renfen ezta Adifen ditugun lan baldintzak, soldata txikiagoa eta baldintza okerragoak dituzte. Goizean nirekin sektore batean lan egin dezakete, eta gauean beste batean. Haien lan baldintzak Lan Ikuskaritzan salatu izan ditugu, baina ez digute jaramonik egin. Garai batean Altsasun 180 pertsonak lan egiten zuten, bizi beteta zegoen: kantina zegoen, estankoa, liburu denda... Egune-ro 200 bidaiari txartel baino gehiago saltzen ziren. Zerbitzu horiek



"ALTSASURA EZ DA ETORRIKO INOR, ETA DENBORA PASATZEN DENEAN, ITXI EGINEN DUTE"

ERNESTO REYES LARA

"TREN PUBLIKOA ETA SOZIALA NAHI BADUGU, EZIN DA TREN MOTA BAKAR BATEN ALDE EGIN"

ERNESTO REYES LARA

"GAUR EGUNGO TRENBIDEAREN PLATAFORMAK BIKOIZTEKO AUKERA ESKAINTZEN DU"

ERNESTO REYES LARA

bidaiari faltagatik desagertu dira. Orain ez dago ezer. Lanpostu batzuk teknologia aurrerapenengatik kendu izana ulertzen dugu. **Herrietan plaza balute, langileak bertan bizitzeko aukera lukete?**

Altsasun Iruñea, Irun eta Gasteizko trenbideek bat egiten dute. Logikoa da bertan sektore bat egotea. Baina hiriburuetara eramatea erabaki dute, teorikoki, "lanpostuak desiragarriagoak egiteko, langileak gelditzeko eta ez joateko". Baina kontrakoa gertatzen ari da: jendea hiritatik doa etxebizitzak duen prezioagatik, Gasteiztik Altsasura bizitzera etorri dira. Orain hiriburuetatik etorri, lan egin eta joan egiten dira. Gainera, ez dute ezta plazarik. Altsasutik abiatu edo helmuga zuten trenak zeuden lehen, haien langileendako gelak... Tren geltokiek inguruan beste-lakoak sortzen ziren. Esaterako, Altsasun ez hain aspaldi, 40 bat urte, Txunkai edo geltoki auzoan hiru taberna, hotela, harategia, ile apaindegia eta denda txiki bat zeuden. Bizi handia zuen auzoak. Gaur egun ez dago ezer. Hori izan daiteke herrien etorkizuna.

Zein geltoki eta geraleku kendu dira Sakanan?

Izurdiaga, Hiriberri Arakil, Lakuntza, Bakaiku, Olatzagutia eta Ziordikoak. Herri horietan aspaldi ez da tren bat gelditzen. Gaur egun trenak Uhart Arakilen, Etxarri Aranatzen eta Altsasuko geralekuan eta geltokian gelditzen dira bakarrik. Tren publikoa, soziala eta edozeinek erabiltzea nahi badugu, ezin dugu tren mota bakar baten alde egin. Abiadura Handiko Trenak (AHT) estatuan jendea hiri handitik handira eramateko besterik ez du balio. Gainontze-koak ahaztuta uzten gaituzte. Ohiko trena sustatu behar dugu. **Uhart eta Etxarriko tren geltokiak erabat hutsik daude?**

Inbertsio handia egin zuten horiek berritzeko. Pena da, baina enpresa honetan askotan gertatzen den zerbait da: zerbaitean dirua inbertitu eta berritzen denean, askotan berehala itxiko den sentipena dugu. Altsasuko geltokian ere tailer gune eder bat berritu zuten, azpiegiturako jendea etortzeko egin zuten. Orain ez dago langilerik, eta ez da sekula erabili.

Altsasun bat egiten duten hiru trenbideetatik bi bikoiztuta daude.

Bai, trenbide bikoitza da, trenak bi norabidetan joateko. Irun eta



Jardunaldiaren barruan, 200 bat pertsona elkartu ziren larunbat arratsaldeko konferentzian. UTZITAKOIA

Madril arteko trenbide nagusia da, garrantzitsuenetakoa bat da. Hortik pasatzen dira merkantzia eta tren espresak. Gasteiztik Altsasura Alvia moduko trenak 160 km orduko gehienezko abiaduran ibiltzen dira. Baina Gipuzkoan, portu aldean ezin dute abiadura hori hartu tunel eta bihurguneengatik. Eta aldiriko tren asko daudelako.

Zer diozu merkantzia garraioaz?

Merkantzien korridoreak daude, tren autopistak, Mediterraneokoa eta Atlantikokoa. Horiek lotu nahi dituzte Zaragoza, Iruñea eta Sakanatik pasaz. Eraginkorra izateko bi trenbide behar dituzu. Baina AHTren bidez estatuan sekula ez da merkantziarik garraiatu. Bi korridoreak lotu nahi dituzte eta, horretarako, abiadura

handian inbertitu nahi dute, beste trenbide bat eginez. Merkantzia trenek trenbideak asko hondatzen dituzte. Gaur egungo trenbidearen plataformak bikoizteko aukera eskaintzen du. Azterketak serioak egin dira, eta trenbidea bikoizteko aukera dagoela ondorioztatu dute. Hori nahiko erraz egin daiteke, eta askoz ere tren gehiago ibiltzeko aukera ematen du.

Sakanako enpresek tren bidezko merkantzia garraioa egiten zuten?

Bai. Porlandegira ikatzez betetako bagoiak etortzen ziren, eta porlanez betetako zisternak ateratzen ziren. Uste dut egunean bitan ateratzen zirela. Sunsundegui materiala ateratzen zuen. Garai batean tren bidez mugitzen ziren merkantzia gehienak: laranjak, garia, ardoa, egurra, po-

tasa, butanoa, biniloa, gasolina, merkantzia arriskutsuak, ibilgailuak, txapazko bobinak, txartarra... Altsasun trenen maniobrak egiteko beti egon izan dira langileak, tren traktore batekin bagoiak mugitzeaz arduratzen zirenak. Lehen paketeria zerbitzua zegoen. Zuk pakete txiki bat edo bagoi oso bat bidal zenezake. Kontratu egin eta beste tren bati gehitu zeniezaioke. Merkantzia eramateko Madrilera bitarteko tren bat antolatzen zen. Hori egin zitekeen. Enpresa handiek tren osoak kontrata zitaketen. Lehen sailkapenak egiteko, bereizteko, pisatzeko asko erabiltzen zen. Gehiegi pisatzen bazuen deskargatu beharra zegoen eta, horretarako, jendea behar zen. Lehen azpiegitura hori guztia zegoen. Desegiten joan

dira, ez da erabiltzen... Altsasun berrogei trenbide pasa daude. Haiek ikustea pena ematen du: zuhaitzak hazten ari dira, erabilerarik gabe daude, ezin da haieran zirkulatu, ezeztatuta daude... **Ongi jarriz gero, Altsasuko tren geltokiak merkantzia garraioa hartzeko aukera luke?**

Gaur egun geltoki intermodalak edo industrialdeetan trenbide sarrera-irteerak egiten dira. Araia-ko ibilgailu esportatzailea den enpresari trenbidea egin zitzaion, baina bizpahirutan besterik ez da erabili. Azken finean, errepide bidezko garraioari erraztasunak eman dizkiote. Trenbide bidezko merkantzia garraioa sustatzeko makina bat plan egon dira, gobernu guztiek hitz onak izan dituzte, baina... Irungo mugatik 13.000

mila kamioi pasatzen dira egunero. Gehienak hemendik pasatzen dira. Merkantzia tren batek 20 edo 30 kamioi adina eraman dezake.

Treneko diruaren inbertsio gehiena abiadura handira bideratu dute, eta gainontzeko guztia hiltzen utzi dute, gure ustez, nahita. Funtzionatzen ez duen aitzakiarekin, dena azpikontratu dute. Edo erkidegoei ematen diete. Merkantzia garraioan aritzen diren enpresek bakarrik errentagarria dena garraiatzen dute. Zerbitzu publiko batek kudeatuta, hain errentagarria izan gabe ere, gauza horiek guztiak eramaten saiatuko litzateke. Trenbide lineak ixtearen alde egin zutenen senideek enpresak sortu zituzten, esaterako, autobus enpresak.



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-oliba birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekolizearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



Palestinaren aldeko bi orduko elkartasun aktiborako deialdia

Larunbatean egingen da Foru plazan, 19:00etatik aurrera. Han proiektuak

ALTSASU

Israelek Palestinako Gazako Zerrendan 30.000 pertsona hil ditu eta Egiptoko mugaren ondoan dagoen Rafah hiria suntsitzeko prestatzen ari da. Dagoeneko Israelgo armadak Gazako biztanleriaren %5 erail edo zauritu duela jakinarazi du Yala Nafarroa Palestinarekin plataformak. Gainera, umezurtz gelditu diren edo derrigorrezko joan-etorrietan 17.000 haur galdu dira.

Egoera hori salatu eta genozidioa gelditzea eskatzeko Altsasu bi orduko ekitaldia egingen da larunbatean. Bi ordu horietan txalapartariak, kantariak, musikariak eta dantzariak izanen dira. Horrekin batera, Afrika iparraldean jaiotako altsasuarrek pastak eta tea eskainiko dituzte. Plataformaren materiala salgai izanen da.

Sosa

Plataformako kideek dirua bilitzeko ere baliatuko dute larunbateko deialdia. Bi helbururekin. Batetik, Israelgo agintariak epailearen aurrea eramatea. Bestetik, Mundu Bat gobernuz kanpoko erakundeak Palestinan proiektuak garatzera bideratuko



Palestinaren aldeko manifestazioa.

da jasotako dirua. Ekarpenean egiteko aukera izanen da Altsasuko plazan. Bestela, ES36 3035 0083 28 0830140037 kontu korrontean egin daiteke Palestinaren aldeko diru ematea. Bizumen bidez ere lagundu ahal izango dira ekimenak, "dohaintza" atalean, Mundubat edo 08837 kodea bilatu behar dira. Bestalde, plataformako kide diren UGT, CCOO, LAB, Steilas, ESK, CGT eta Solidari sindikatuak dirua bilduko dute Nafarroako dozenaka enpresatan martxoaren 1etik 11ra bitartean.

DUELA 25 URTE...



Martinen poesia liburua

Richard Martin olaztiarrek *La llama que consume* olerki liburua argitaratu zuen. Hamar urte lehenago idazten hasi zen, eta urteetan idatzitakoak ordenatzen hiru hilabete eman zituen. Olerkietan eguneroko bizipenak jasotzen zituen, besteak beste, amodioa, jainkoa, heriotza eta gizakiaren txikitasuna unibertsoan. Olerkian sei ataletan banatuta eman zituen. Liburua abenduan argitaratu zuen eta hainbat tokitan eskuratu zitezkeen.

Errigorarekin despentsa betetzeko garaia

Lehen sektorea garai zaila bizi duen unean iritsi da kanpaina. Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskuratu daitezke

SAKANA

Dagoeneko martxan da Errigoraren udaberriko kanpaina. Haren bidez urte guztirako eskaerak egitera gonbidatu dituzte herritarrik. Haien eskaintzan daude zainzuriak, piperrak, orburuak, kardua, menestra, arbendolak, barazki potoak, tomatea, dilista poltsak, txitxirio poltsak eta potean, potxak, pasta, arroza eta olio. Eskaintza osatzen duten hainbat produktu nekazaritza ekologiko bidez landutakoak dira. Aurtengo berrietasunak ardo berezi eta goren eta babarrun gorri potean eskaintzak dira. Errigorakoek oliba-olio birjina estra bost litroko bidonetan eskaini dute eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan, salbuespena arroza da, seiko lotetan banatuko dena.

Errigorako produktuak martxoaren 13ra arte eska daitezke. Horretarako, *errigora.eus* webgunea erabil daiteke, bestela, 848 871 223 telefono zenbakira hots egin daiteke. Erosketa non jaso nahi den ere zehaztu beharko dute erosleek. Orain eskatutakoa apirilaren akaberan edo maiatzaren hasieran jasoko dute eskatzaileek. Ordaintzeko bi aukera daude: online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izanen da. Bestela, dena batera ordain daiteke, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.

Testuingurua

Merkatuaren logikak aginduta oliba olioaren prezioa igotzen ikusi dugu. Ikusi ditugu nekazari eta abeltzainak traktoreekin hiri eta errepideetan protesta egiten ere. Lehen sektoreko egoeraren gordina hiru datuekin azaldu dute Errigorako kideek kanpainaren aurkezpenean: Ager eremuko esplotazioen %36 desagertu dira azken 12 urteetan; Nafarroan nekazarien %7k baino ez ditu 40 urte baino gutxia-



Errigoraren kanpainaren aurkezpena upategi batean egin zuten. UTZITAKOIA

UDABERRIRO 10.000 KONTSUMITZAILEK BAINO GEHIAGOK EROSTEN DITUZTE ELIKAGAIK

go eta Euskal Herrian 4.000 tona garbantzu kontsumitzen baditugu urtero, 100 tona eskas besterik ez ditugu ekoizten. Testuinguru horrek harrapatu du Errigora komunitatea, ekoizleak salmentak egiterakoan eta kontsumitzaileak erosketak gauzatzekoan.

Errigorako kideek azaldu dutenez, udaberriro 10.000 kontsumitzailek baino gehiagok erosten dituzte elikagaiak haien bidez. Eta horrek hainbat emaitza eman dituela nabarmendu dute: ekoizle guztiek euskara plan bat dute abian 2023tik, kontserba enpresetako bat gainbeheratik egitasmo berri bat izatera pasa da, pikillo piper ekologiko landatze berriak sortu dira, lekaleak sustatzeko emandako pausoen ondorioz Hazialdeko nekazaritza kooperatibaren sortu da, Nafarroako oliba olio ekoizpenaren

%5,7 banatzera heldu da Errigora eta Euskal Herriko 20 jantoki kolektibotan Errigorako olio, arroz edo dilistak daude menuetan.

Errigoraren ekoizle taldera ardogileak (Mendiko, Lezaun, Azpea eta Aristu upategiak) batu dira. "Errigoraren gaitasunen ikur izan daiteke: erreleboa jaso duten gazteak, lurrari emanak, ekoizpen eredu baliotsuetara engaiatuak, herriari lotuak, etorkizunari atxikiak...", adierazi dute Errigorako kideek kanpainaren aurkezpenean. Aldi berean, "amets berriak ere ereiten ari" direla gaineratu dute. Beti ere "nekazariendako lan baldintza duinagoak eskuratzeko; merkatu logikatik ateratzeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko epe-erdiko akordioak bezalako ametsak edota kontsumo elkarre eta eragileekin aliantza sareak osatzea". Badituzte egitasmo gehiago ere. Geureari eutsi leloa duen kanpainarekin, "zailtasunez jakitun, gure ahaletatik amestarako bidea marraztu ez ezik, bidea egiten jarraitu. "Eutsi gureari! diogunean horixe adierazi nahi genuke, eta noski milaka despentsa betetzen segi!"

FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasuk atseden jardunaldia zuen

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Lourdes	41
8	Altsasu	12

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 2, LARUNBATA

19:00 Gares - Altsasu (Osabidea)

Altsasu, bigarren faseari ekitera

Preferenteko lehen fasea despedituta, Gares du lehen aurkari Altsasuk.

GIZON PREFERENTEA

21. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Gazte Berriak - Altsasu 3-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Burlades B	43
12	Altsasu	29

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 3, IGANDEA

17:30 Altsasu - Soto-Ibarbaso (Dantzaleku)

Altsasu, buelta ematera

Azken jardunaldian Antsoaindik punturik gabe itzuli zen Altsasu. Igandean Soto-Ibarbaso hartuko du Dantzalekun. Sailkapena estu dagoenez, puntuatuz gero gora egiteko aukera aprobetxatu nahi du Altsasuk.

Zaldia vs Txaparros

Elomendiko Txapelketan, Zalduek 3-4 galdu zuen Elomendiren kontra, eta bosgarren da. Bihar Txaparros zazpigarrena du arerio.

GIZON ERREGIONALA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Asdefor 3-0

Lagun Artea - Lagunak B 1-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Mutilbera C	45
3	Etxarri Aranatz	38
7	Lagun Artea	29

MARTXOAK 2, LARUNBATA

10:00 Baztan B - Etxarri Aranatz (Giltxaurdi)

17:00 Zizur - Lagun Artea (El Pinar 1)

Etxarri indartsu itzuli da

Atseden jardunaldia eta gero, Etxarri Aranatz Asdeforen kontra garaipen polita lortu zuen eta hirugarren da. Bigarrenera igotzeko, Elizondoren bide berean jarraitu nahi du.

Lagun Artea, Zizur azkenaren kontra

Lagun Artea bana berdindu zuen Lagunak B taldearekin eta bihar sailkapenean azkena den Zizur du arerio.

Jon Erdozia txapeldun, lehengusuaren aurretik

AIZKORA Banakako Aizkolari Gazteen Urrezko txapela jantzi zuen Jon Erdozia Gonzalez de Pedroso etxarriarrak, azken enborrean Aritz Oiarbide Erdozia lehengusua aurreratu, eta 8 segundo aterata. Pozik dago Sakanako Aizkora Eskolan trebatutako bikoa

Maider Betelu ETXARRI ARANATZ

Igandean Banakako Aizkolari Gazteen Urrezko Txapelketako finala jokatu zen Azpeitian. Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide lehengusu etxarriarrak, Igoi Pikabea eta Jokin Larrieta lehiatu ziren. Finala hunkigarria izan zen, etxarriarrek lehia oso estua izan zutelako. Azkenean, Jon Erdoziak jantzi zuen txapela (7:22), Aritz Oiarbideri (7:30) 8 segundo aterata. Pikabea hirugarren (8:27) eta Larrieta laugarren (9:35) izan ziren.

Nahiko pareko joan zen finala. Hasieran Aritz Oiarbide jarri zen aurretik. "Lehena hasi nintzen, atzetik Jon, Pikabea eta Larrieta nituela. Hirugarren enborrerako Pikabea eta Larrieta atzean geratu ziren, eta laugarren eta azken enborrean erabaki zen dena. Enborrari buelta batera eman genion, baina bukaeran Jon 8 segundo aterata zizkidan" laburbildu du Aritz Oiarbidek.

Urduri

Jon Erdoziak aitortu duenez, "oso urduri" zegoen. "Hasieran, ez dakit nerbioengatik edo, ez nuen kolperik. Eskuek ez zidaten segitzen, eta indarririk gabe bezala aritu nintzen. Arraro". Final handia zen, eta hori beti nabari-



Jon Erdozia, Gazteen Banakako Txapelketa irabazi berriaren irabazlea. IBON ERRAZU, EGUR SPORT

tzen da. "Aritzekin batera Binakako Gazteen Urrezko finala jokatu genuenean nerbioak bien artean pixka bat banandu genituen, baina hau banakakoa zenez... Ni, behintzat, oso urduri hasi nintzen". Bi lehengusuak finalerdiak irabaztetik zetozen, "baina alde gutxiz. Beraz, fabrito izatearen kontu hori, ez. Gainera, aizkora edozer gerta daike: nerbioengatik punch-ik edo kolperik gabe geratzea, adar bat ateratzea, aizkora apurtzea, Binakako finalean gertatu zitzaizgun bezala... denetatik".

Lehen enborrean, gainera, korte berezi bat egin behar izan zuen Erdoziak. "Enborrak azpian halako boga bat bezala zuela ikusi genuen, adar bat izan zitekeena, eta korte guztia aldatu behar izan genuen. Horrek urduriago jarri ninduen" azaldu du. Hala ere, berean zentratu zen. "Ez nuen aldeetara begiratu ere egin. Ni, nirera. Megafoniatik entzunda banekien nahiko aurrean nengoela, baina beste ezer ez. Azkeneko enborrera iristerakoan ohartu nintzen Aritz nuela aurretik".

Orduan jo zuen azken eraso. "Azken enborrean nuen guztia eman nuen; ez nuen aizkora aldatu ere egin, eta topera aritu nintzen". Azken aizkorakada jo arte ez zen konturatu Aritz aurreratu, eta txapelduna zela. "Edozer gerta zitekeen".

Final estu eta hunkigarria bizi zuten lehengusuek. Aizkorari lotutako familiarendako, zer esanik ez. "Aittune oso pozik zegoen, imajina dezakezu. Biloba bat txapelduna eta bestea bigarrena, ezin da kexatu" dio, irribarrez, Jon Erdoziak. Juani Erdozia aizkolaria da euren aitona, eta Juanjo Erdozia aizkolaria, Jonen aita.

Txapela aitonari eta aitari eskaini die bereziki, "beti gurekin hara eta hona ibiltzen direlako, gu laguntzen. Dena den, gustura aritzen dira, euren saltsan". Baita lehengusuari ere, eta eurak jarraitzen aritzen diren guztiei. Txapela sagardotegi batean egin dako bazkarian ospatu zuten, familian.

Aurki banakako beste txapelketa batean parte hartuko dute, baina kategoria zehatzagoetan jokatu denean, 23 urtez azpiko eta 19 urtez azpiko kategorietan. Eta, ondoren, udako Nafarroako eta Euskadiko txapelketak iritsiko dira.



Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide. UTZITAKOIA

Orain, Europako Kopa

DISKO JAURTIKETA

Martxoaren 9an eta 10ean Europako Jaurtiketa Luzeen Kopa jokatu da Leirian (Portugal). June Kintana disko jaurtitzaila dago Espainiako selekzioak asteartean argitaratutako atleten zerrendan. Pozez gainezka dago bakaiuarra, asteburuan, Jaenen, Neguko Espainiako Jaurtiketa Luzeen Txapelketa irabazi baitzuen, zazpigarrenez (53 m).



MIGUELEZ TEAM / ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

Azaroaren 15ean berriro jaiotzen Josu Etxeberria Azpilikueta txirrindulari iturmendiarrak (Rural Kutxa-Seguros RGA). Entrenatzen ari zela, Zia igotzen, jaisten ari zen auto batek bete betean harrapatu zuen, eta danbatekoa izugarria izan zen; oso larri eraman zuten ospitalera. 26 egun egon zen ingresatuta, horietako hamahiru Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU). Masailezurra, bularrezurra, hainbat saihets, eskumutur bat, pelbisa eta bi tibia apurtu zitzaizkion, besteak beste. Hainbat ebakuntzen ondoren, errehabilitazio gogorrean murgilduta dago Josu Etxeberria. Bizitzak eman dizkion txartelen aurrean, gertatutakoa onartu, aurrera egin, eta etorkizunari begiratzea erabaki du, egunez egun helburu berriak jarritz.

Istripua sekulakoa izan zen. Baina agian bitxiarena da, 2022an Ronde de L'Oise lasterketako erorikoan sei orno apurtu eta gero egindako ebakuntzan jarri zizkidaten plakek salbatu zizutela bizitza.

Ziako istripuan goitik behera hautsi nintzen; aurpegitik hasita hanketaraino, guztia apurtu zitzaidan. Eta hala da, 2022an Ronde de L'Oisen izandako istripuan hautsitako sei ornoak berregiteko ebakuntzan plaka batzuk jarri zizkidaten. Plaka horiek gabe, azken istripuan bizkarrezurra apurtu egingo litzateke. Beraz, plaka horiek salbatu egin naute. Bizitza, batzuetan, horrelakoa da.

Nola gogoratzen duzu Ziako istripuko eguna?

Egun horretan gertatutakoaz ez dut ezer gogoratzen, zer gosaldu nuen ezta ere. Ospitalean esnatu nintzen, hasiera batean ez nekien ospitalean nengoetik. Ez nintzen kokatzen. Egun pare bat kostatu zitzaidan kokatzea, erizainekin eta familiarekin hitz eginda. Egoera amets gaizto bat bailitzan bizitzen nuen; hura amets gaizto bat zela uste nuen, eta hurrengo egunean etxean esnatuko nintzela. Baina han jarraitzen nuen.

Une gogorrak.

Aldeetara begiratzen nuen eta: "non nago?" pentsatzen nuen. Ospitalean esnatu nintzen momentuan familia hor zegoen, eta euren aurpegiak ikusita nire buruari galdetzen nion: "baina zer pasatu da?" Hasierako egunak oso gogorrak izan ziren. Fami-

"Begiratu, eta ez nintzen ni; hura ez zen nire aurpegia"

JOSU ETXEBERRIA AZPILIKUETA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Entrenatzen ari zela auto batek harrapatu zuela 4 hilabete beteko dira aurki. Errehabilitazioa ongi doa, baina lan eta pazientzia handia ditu aurretik



Josu Etxeberria, arrabolan. Bizikletara igotzearekin animatzen dela aitortu du. UTZITAKOA

liakoei galdetuta, pixkanaka gertatutakoa jabetzen eta onartzen hasi nintzen. Mugikorra hartu ahal izan nuenean, Google-en informazioa bilatzen ibili nintzen, gertatu zena jakiteko.

Horrenbeste hausturarekin, gorputz guztian nabaritutako zenituen oina-zeak, aurpegitik hasita.

Masailezurra hautsi zitzaidanez, aurreneko ebakuntzak aurpegi-koak izan ziren, lehena larrialdikoa, eta bestea egun batzuetara egina, planifikatutakoa. Begiratu, eta ez nintzen ni; ez zen nire aurpegia. Aurpegi guztia puztuta nuen. Lau egunetara konturatu ziren mingaina ere txikituta nuela, eta mingaina ere josi zidaten, esna nengoela.

Oraindik ere zure burua ispluan ikusten duzunean ezberdin zaude-la sentitzen jarraitzen duzu? Edo guztia bere tokira etorri da?

Hasieran ezberdin sentitzen nintzen, baina etxera etorri eta aste bat pasa ondoren, nolabait nire aurpegia errekonozitu nuen. Gutxi gorabehera nire aurpegia da, baina sudurra ez dut nuen bezala. Badaude gauza ezberdin batzuk, baina gutxi gorabehera nire aurpegia da. Orbainak edo zikatritzak badituz, baina ez dira inpresioa sortzen duten horietakoak. Nolanahi ere, dituzun orbainak dituzula, azkenean onartzen dituzu.

Bestelakoan, nola zaude? Bizkarrezurreko ebakuntzaren ondoren, berehala eman zenion buelta lesioari, eta errehabilitazioan jada errodillean edo arrabolean hasi zara. Ibiltzeko makuluak behar dituzu?

Etxean banago ez dut ibiltzeko arazorik, baina kalera makuluekin ateratzen naiz. Oraindik hanka kargatzen zait, eta asko ibiltzen banaiz oinazeak ditut. **Errehabilitazioa edo osatze prozesua ongi doa?**

Bai, prozesua oso ondo doa, eta horregatik pozik nago. Arrabolean hasi naiz orain. Oraindik ez dut asko egiten, baina taldeko maillota janztearekin, arrabolean jartzearekin eta bizikletan egotearekin, pozik. Izugarri animatzen nau. Astean hirutan noa errehabilitaziora, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan. 12:00etan iristen naiz Iruñera, eta hasieran Jose Vilarriño fisioterapeuta altsasuarrarekin egiten dut lan. Ondoren, Mutuara joaten naiz, eta gimnasioan mugimendu ariketak egiten ditut, eta igerilekuan egiten dut lan.



Josu Etxeberria bere taldearen 2024 denboraldiko aurkezpena hurbildu zen. Juan Mari Guajardok egindako elkarrizketa hunkigarria izan zen. RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

15:00ak aldera ateratzen naiz. Hori da nire egunerokoa errehabilitazioan.

Zer diote Vilariñok eta gainontzeko fisioterapeutek?

Errehabilitazioa ongi doa, baina esaten didate pazientzia izateko, denbora behar delako. Prozesu hau luzerakoa da, ez da edozer gauza. Beraz, pazientzia, eta gorputzak esango duela.

2022ko bizkarrezurra berregiteko lesioarekin alderatuta, hau gogorragoa al da?

Hau askoz ere zailagoa eta gogorragoa da. Bizkarrezurreko ebakuntza izan nuenean, hiru hilabete pasa zirenean normal nengoan, sasoian. Honetan orain hasi naiz bizikletara igotzen. Ez dakit noiz arte luzatuko den. Egunero pauso bat ematen saiatuko gara, eta, egunez egun, ikusten joango gara.

Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionaleko txirrindularia zara. 2024 urteko kontratua indarrean duzu. Talde aurkezpenean egon zinen, Iruñean, eta oso polita izan zen.

Bai (kar-kar). Taldearen aurkezpen eguna egun berezia da. Taldekide guztiak elkarrekin gauden egun bakarrenetakoa da, berehala denboraldia hasi eta bakoitza toki batean dagoelako. Aurtengo

aurkezpenean taldekide guztiak agurtu, eta beraiekin pixka bat hitz egin eta egoteko aukera izan nuen. Espeziala izan zen.

Une gogorretan ezagutzen omen da, benetan, jendea. Ingurukoek, lankideek... nola erantzun dute bizi izan duzu egoera latzean? Eskertzeko asko al duzu?

Bai, jendeak oso ongi erantzun du. Lankideak lehenengo egunetik kezkatu ziren nitaz. Lagunei asko diet eskertzeko; beraiekin izan dut harreman gehiena. Gaizki nengoen momentutan bisitan etorri dira, eta alboan izan ditut. Lagunak izan dira gehien bat animatu nautenak. Eta familiak, jakina.

Bi istripu larri izan dituzu. Etxean ez al dizute esan txirrindularitza uzteko garaia duzula? Edo inoiz ez liokete halakorik esango?

Bai, esaten didate (kar-kar), eta askotan. Normala da, jada bi abisu serio izan ditut. Niri bizitzak txartel hauek eman dizkit, baina garrantzitsuena txartel

"ERREHABILITAZIOA ONGI DOA, BAINA PROZESU HAU LUZERAKOA DA; PAZIENTZIA BEHAR DA"

horiek ongi kudeatzea da. Txartel horien eta nire gogoaren arabera, ikusiko da. Niri edozer gauza esan diezadakete, baina sentitu dudana egingo dut, nik hartuko ditut nire erabakiak. Dena den, egia da beste ikuspuntu batzuk entzutea eta hausnartzea beti ondo etortzen dela.

Martxel anaia ere txirrindularia da, afizionatuen Rural Kutxa-Alea taldean.

Bai, eta istripua izan nuenean susto latza hartu zuen berak ere, agian nik baino handiagoa. Martxelek denboraldia hasi du, eta bera ikustera eta animatzera joango naiz. Orain arte ia ezinezkoa zen, nik ere lasterketak nituelako, baina orain aukera dut. Nekatuta bukatzen duzu errehabilitazio saio baten ondoren, edo geroz eta animatuago zaude?


Batzuetan pisutsua egiten da. Leku batetik bestera, nekatuta bukatzen duzu, fisikoki baino, mentalki gehiago. Baina beharrezkoa da, ni ere hobetzen ari naiz eta horregatik animoso joaten naiz. Fizioak ere kaña ematen dit; beraz, pozik.

Gertatu zaizuna oso gogorra da fisikoki, eta mentalki izugarria. Arlo psikologikoa lantzeko neurriak hartu dituzu, guztia behar bezala asimilatu eta prozesuari aurre egiteko?

Gertatutakoa mentalki gogorra da. Ni neure egunerokotasunean beti saiatzen naiz fisikoaz aparte alde psikologikoa ere asko lantzen, bai profesionalekin eta baita nire kabuz ere. Psikologia mundua beti landu izan dut, bai entrenamendu eta errendimendurako, eta zer esanik ez beste gauzetarako. Orain tokatu zaidana gogorra da, baina hau gertatzen den momentutik bi aukera daude: pasa denari bueltak ematea, edo gertatutakoa onartzea, etorkizunari begiratzea eta egunez egun helburu berriak jartzera. Nire aukera bigarrena izan da beti. Bizitzan ez dakigu zer pasako zaigun, gauza asko ez daude gure esku, eta horregatik datorrena beti onartu beharra dago, helburu berriak jarri eta etorkizunari ahal den hobekien aurre egiteko.

Zeuk sufritu duzu istripua modurik gordinenean, jakina, baina auto gidariarendako ere ez zen samurra izango. Berarekin egon al zara?

"BIZITZAN GAUZA ASKO EZ DAUDE GURE ESKU; DATORRENA BETI ONARTU BEHARRA DAGO"



RURAL KUTXA, SEGUROS RGA, ARTXIBOA

"Sakandarrak oso ongi ikusten ditut"

JOSU ETXEBERRIA
TXIRRINDULARIA

Nola ikusten duzu Rural Kutxa-Seguros RGA?

Gure taldea ongi ikusten dut. Aurten ez du Vueltan parte hartuko, pena handia, baina, hala ere, denboraldi ona egingo du, ziur.

Eta sakandarrak? Mulu Hailemichael taldekidea, Igor Arrieta, Iker Mintegi, Gorka Izagirre...

Sakandarrak oso ongi ari dira, eta onena opa diet. Aurten Itzulia bi etapa izango ditu Sakanan. Apirilaren 3koa Altsasun despedituko da, eta apirilaren 4koa Etxarri Aranaztik abiatuko da. Pentsatzekoa da inbidia sanoa izango duzula. Bai, guztiz. Itzulia hona etorriko zela jakin nuenean, pentsatu nuen "jo, nola gustatuko litzaidakeen bertan egotea". Baina beste modu batean egongo naiz, etapak jarraitzen. Polita da Itzulia etxetik pasatzea.

Gertatutakoa istripu bat izan zen, argi eta garbi. Inork nahi ez duen istripua. Bera ZIUn egon zen istripuaren aurreneko egunetan, ni lo nengoela. Nire familiarekin egon zen, baina ni ez naiz berearekin egon. Agian etorkizunean izango da. Bizitzaren bueltak. Aurki udaberria dator, eta horrek beti animatzen du. Osatze bidean, zortetik onena opa dizugu. Eskerrik asko! Egia da, bizitza beste modu batera ikusten da udaberri aldera, gehiago animatzen zara.



ALDABIDE PILOTA KLUBA

Sanchez eta Ongay, txapeldunak

PILOTA Burlatak Nafarroako Kirol Jokoen Nafarroako Banakako finalak hartu zituen. Benjaminen 2. mailan Unax Sanchezek (Aldabide) 2-0 irabazi zion Otamendiri (Atarrabia), 10-5 eta 10-1. Kimuen 3. mailan Irurtzun klubeko bi pilotarik jokatu zuten finala. Ongayk 18-12 irabazi zion Erbitiri. Bihar, larunbata, Binakako hiru partida daude jokoa Arbizun.



UTZITAKOA

Areto futbolean, gustura

ARETO FUTBOLA Igandean Mank-ek antolatutako Emakumeak Lagun Topaketan bigarren saioan parte hartu zuten 23 helduek eta 21 hurrek areto futbolean trebatzeko aukera izan zuten, Olaztin. "Izugarri ongi, giro ederrean" pasa zuten goiza. Hurrengo hitzordua apirilaren 21a da, Etxarri inguruko mendiri irteera. Izena ematea zabalik dago, Mank-en, dohainik.

TXIRRINDULARITZA Iker Gomez, Altsasun arantza kentzera

Burunda klubak antolatuta, igandean juniorren 38. Udaberri Saria jokatu da, 10:30ean, Iortia plazatik abiatuta (80 km). Altamira bitan igoko da. Iker Gomez altsasuarrak Villatuertan zazpi-garren izaten ekin dio denboraldiari, eta bere klubeko proba begiz jota du. Joan zen urtean ezinezkoa izan zen, baina aurten gorenean egon nahi du.

Gure Pilota, txapeldun

PILOTA GOMA San Juan pilotalekuak Nafarroako Kirol Jokoen Binakako Paleta Goma Txapelketako bigarren faseko finalak jokatu ziren, eta Etxarri Aranazko Gure Pilota izan zen protagonista nagusia, final guztiak jokatu zituelako. Kimuetan, haurren 2 mailan, kadeteetan eta jubenetan txapeldun, eta haurren 1 mailan txapeldunorde izan zen.



Zabaleta, Etxeberria, Altuna eta Martija, material aukeraketan. Finalerdietarako "gogotsu" dago laukotea. ASPEPELOTA

Binakakoa: berriro zerotik hastera

PILOTA Abian da Binakako Txapelketako finalerdietako ligaxka. Larunbatean, Jaka-Mariezkurrenak Artola-Imaz izanen dituzte aurkari Labriten, eta igandean Altuna-Martija eta Etxeberria-Zabaletaren norgehiagoka hartuko du Ogetak

Maidar Betelu Ganboa ARAKIL
Atzean geratu da Binakako Txapelketako hasierako ligaxka luzea eta play-off erabakigarriak. Lau bikotek jokatu dute Binakako finalerdietako ligaxka, ligaxkako lehen lau postuetan sailkatu ziren lau bikoak, hain zuzen ere: Jaka-Mariezkurrena, Etxeberria-Zabaleta, Altuna-Martija eta Artola-Imaz. Jotzaile handien eta aurrelari trebeen hiru jardunaldi ditugu aurretik. Finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldia polemikarekin hasi da. Jakak eta Mariezkurrenak Artolaren eta Imazen kontra jokatu dute larunbatean Labriten, eta lehendabizikoak kexu azaldu ziren materialarekin,

pilotak "zozoak eta motelak" zirela adieraziz. Aldiz, Imazek "Labriten jokatzeko pilota egoikiak" zirela azaldu zuen. Ogetan, aldiz, ez zen materialaren inguruko kexurik izan. Peio Etxeberriak eta Zabaletak Altunaren eta Martijaren kontra jokatu dute igandean, eta lau pilotariak gustura azaldu ziren. "Material ona da, txapelketa guztian izandakoa bezala" azaldu zuen Martijak. Finalerdietan sartzea "oso polita" izan dela nabarmendu zuen. "Ongi ari naiz eta horrela motibazio gehiagorekin ateratzen naiz kantxara". Finalerdietan lehen partida irabazten hasteak "garrantzi handia" duela nabarmendu zuen Etxebe-

rriko atzelariak, eta tanteoa ere zaindu behar dela. Partida gogorra espero da, atzelari handien arteko lehia, eta aurrelarien arteko erasoak. "Altuna eta Martija bikote oso sendoa dira, ez dute inoiz amore ematen" nabarmendu zuen Etxarrengo atzelariak. Ogeta gustuko du, bere frontoi kuttuna da, eta arazo fisikoak gainditu ditu. Altunak ere oinazetik ez duela nabarmendu zuen. Jaialdi honetan, tamalez, Aaron Arbizuk bere azken partida jokatu du Asperekin, enpresak ez baitio kontratua berrituko. Darioerekin bikotea osatuta, Baikaioa eta Salaverri izango dituzte aurkari.



GURE PILOTA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245
/ kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 1

IHABAR Ikastaroa.

Gaztainadi zaharrak berreskuratzea eta berriak landatzearen inguruko formakuntza. Alde teorikoa: Izurrite eta gaitzen kudeaketa, landaketa berriak, lurraren prestaketa. Irakaslea: Efrén Martín Martín Caceresko La Villuercaseko Gaztaina Ekoizleen Elkarteko nekazaritza ingeniaria. Ihabar, Irañeta eta Bakaikun gaztainondoak berreskuratzea eta tradizioz erabiltzeko proiektua.
16:30etik 19:30ean, kontzeju etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Mugikorren eta pantailen auzia komunikazioaren garaian: ongizate emozionala eta komunikazioa jokoan hitzaldia, Iñigo Aritza ikastolak antolatuta.
17:30etik 18:30era, Txioakan.

LAKUNTZA Bilera.

Lakuntza parkea martxan! Bilera. Parkearen zaharberritzea auzolanean egiteko batzarra.
18:00etan, parkean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Negu hurbilak gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 3: 19:30
Astelehena 4: 19:00

Los que se quedan gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 7: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Alemania zineforum filmaren emanaldia
Igandea 3: 19:00

Tótem zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 7: 19:00

ZIORDIA Tailerra.

Irakurkide Txakurrekin irakurketa tailerra, Biak Bat elkartearen eskutik.
18:30ean, liburutegian.

LARUNBATA 2

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Arabako trikuharriak 48 kilometroko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

IHABAR Ikastaroa.

Gaztainadi zaharrak berreskuratzea eta berriak landatzearen inguruko

formakuntza. Alde praktikoa: bakantzeak eta oinen aukeraketa, eraberritzeko inausketa eta lepatzea. Irakaslea: Efrén Martín Martín Caceresko La Villuercaseko Gaztaina Ekoizleen Elkarteko nekazaritza ingeniaria. Ihabar, Irañeta eta Bakaikun gaztainondoak berreskuratzea eta tradizioz erabiltzeko proiektua.
09:30ean, kontzeju herrian.

ALTSASU Gazte agenda.

Iruñeko Salting-era irteera.
13:15 Aita Barandiaran egoitzan dagoen autobus geltokian.
14:00-16:00 Salting.
17:00 Altsasun bueltan.

ALTSASU Palestinaren aldeko ekimena.

Genozidioa gelditu! Gazarekin elkartasun aktiboa, Yala Nafarroa Palestinarekin plataformak antolatuta.
Foru plazan.
19:00 Hasiera: txalaparta eta komunikatuaren irakurketa.
19:30 Kantaitan.
20:00 Haize Berriak bandako laukotearen emanaldia.
20:30 Jauziak.
21:00 Txalaparta.
Amaieran, komunikatuaren irakurketa.
Bitartean, magrebtarren eskutik tea eta pastak, material salmenta eta abokatuak ordaintzeko diru bilketa eta Palestinako egoera salatzen elkarretaratzea.


ALTSASU Antzerkia.

Yllana konpainiaren 666 ikuskizuna. Sarrerak agortuta.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Adei
Adei, Lizerrako eskalatzaille, zorionak zure 11. urtebetzien!! Ongi pasa eta muxu gurdikadat!



IORTIA KULTUR GUNEA

ALTSASU Sorioneke! Euskal Eskultura 2.100 urte: 50 eskultorek parte hartu dute Eskuahaldunak, Euskal Herriko Eskultoreen Elkartearen erakusketa.
Otsailaren 20etik martxoaren 20ra. lortia kultur guneako erakusketa aretoan.

IGANDEA 3

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldeko BTT taldearen irteera: Shanti Spiritu 40 km-ko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Txirrindularitza proba.

XXXVIII. Udaberri Saria Junior milako txirrindularitza proba. 80 kilometro. Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
10:30ean, lortia zabalgunean.

ALTSASU Antzerkia.

Loti ederrak ipuin klasikoaren filtrorik gabeko bertsio berria egin du Glu Gluk konpainiak. Euskaraz. Sarrerak: 4 euro.
17:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Ikuskizuna.

Fantasia con burbujas Jose Luis Lagoren xaboi burbuilekin egindako ikuskizunaren emanaldia. Sarrerak: aurretik 3 euro; egunean bertan 3,5 euro.
17:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 5

ALTSASU Film dokumentalaren emanaldia.

Pasaiko Badia film dokumentalaren emanaldia, Memoria Historikoaren inguruan Sortuk antolatutako jardunaldiaren barruan.
lortia kultur gunean
17:00 Erakusketa.
18:30 Film dokumentalaren emanaldia.



OSTIRALA 1

ALTSASU Ikuskizuna.

Badon Mauriziak* kezduinorhil opera postdramatikokoaren emanaldia: buruak berpentsatzeko eta berreraikitze ariketa bat da, baina batez ere, denaren gainetik, norberaren buruak ospatzeko festa bat. Korrika Kulturalaren ekimenaren ekitaldi nagusia. Euskaraz. Sarrerak: orokorrak 7 euro; Korrika lagun txartelarekin 5 euro.
19:00etan, lortia kultur gunean.

Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIDUNAK

1. SARIA

Jose Andueza Ezkurdia (Lakuntza)

2. eta 3. SARIAK

Miriam Beaskoetxea Martinez (Arbizu)

Txingurriye Aisialdi Taldea (Lakuntza)

Maria Luisa Mazkieran Guridi (Altsasu)



Er **v** **i** **t** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

ESKELA



Lucio Ezkerra Osteriz

Otsailaren 22ten hil zan, 85 urtekin

"Ze suertie yon daun gue biziye zukin konpartitzes, ta guai ze hutsune haundiye autzizun gue biyotzetan"

Zue fameliye

ESKELA



María Zabaleta Telletxea

Zure bizi poza gure artean beti geratuko da

Urdiaingo Herri Eskolako komunitatea

ESKELA



Carmen López Ruiz de Galarreta

Mila esker guztiagatik amona. Beti gure bihotzetan.

Eneko eta Jon

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra

XII. urteurrena
Martxoaren 3an

Adiskede bat bazen herriaren bukaeran gure haurtzaroan beti frontoian helduetan beti herri askotan juergetan Beti gurekin! Maite zaitugu! Ez zaitugu inoiz ahaztuko!!!

Zure lagunak

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra

XII. urteurrena
Martxoaren 3an

Ez dago hitzik gure atsekabea adierazteko zuek ez izateagatik. Beti gogoratuko zaitugu, maite zaitugu eta ez zaitugu inoiz ahaztuko. Lagunei milioi bat esker bera maitatzeagatik.

Aita, ama, Iker eta Erkuden

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra

XII. urteurrena
(Bakaikun, martxoaren 3an)

"Beti gure artean eta gure bihotzetan"

Arbizu eta Bakaikuko familia, maitasunez

OROIGARRIA



Aritz Jauregi Albarracin

II. urteurrena

Gure bihotzetan betiko, maitia

Zure familia

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Olazitik Valdesotora irteera kulturala Zamarroekin: Martxoaren 15ean, arratsaldeko 18:00etan Valdesotoko XIV.Xornas de mazcaras d'lviernu desfileak ikusteko autobusa antolatu da Olazitik, desfile bat martxoaren 16an, 17:00etan izango da eta bestea martxoaren 17an, 12:00etan. Bilerak orokor bat egingo da martxoaren 8an, 18:00etan Olazitiko kultur etxean informazio gehiago emateko. Txan-gora joateko gutxieneko adina 17 urte, gurasoen

baimena idatziarekin eta bidaian doan arduradunaren izen-abizenak. Izena emateko azken eguna martxoaren 5a izango da, 20 euro ordaindu behar dira.

Lakuntzako Udalaren informazioa jasotzeko WhatsApp kanal berria: WhatsApp aplikazioaren bitartez herrian barna dauden iragarki taulen eta abarren informazioa jaso ahalko da hedapen zere-rendaren bitartez. Gogor-razaz dute ez dela udalarekin harremanetan jartzeko kanala izango eta ez direla mezuak eran-

tzungo, informazioa jasotzeko bakarrik izango da. Horretarako 672 778 598 telefono zenbakia zure kontaktuen agenda gorde beharko duzu eta ALTA hitza bidali WhatsApp bidez berriak jasotzen hasteko. Emandako datuen tratamenduaren arduraduna Lakuntzako Udala izango dela gogor-razaz du.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netan-yahu nazioarteko epaileen

aurrera eramateko, Gazan elkartzasuna proiektuak bultzatzeko Mudubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilita dirua eman.

Etzarri Aranzako Udaleko Abeltzaintza Bartzordetik dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela jakinarazten dute: Partzela generikoa

erabili ahal izateko, Europako Nekazaritza Politika Bateratuak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko udaletxean (10:00etatik 14:00etara) izena eman behar da martxoaren 15a baino lehen. Eskabide orria betetzarekin batera, abeltzaina lehentasunezko katalogatutako nekazaritza ustiatetik titulartzat jotzen duen zurtagiri eta aprobetamendua esleitzeko legeak ezartzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte abeltzainek.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenetan 10:00etan liburutegian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan

eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranzaten ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbuzun asteartean 16:30ean kiroldetako tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatutako elkarteetan eta Irurtzunen astelehenetan 18:30ean Irabxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

iragarki@guaixe.euswww.iragarkilaburak.eus**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**edo.eskelak@guaixe.eus

JAIOTZAK

• Unax Arroki Otsagabia, otsailaren 8an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

HERIOTZAK

• **Lucio Ezkerra Osteriz,** otsailaren 22an Lizarragan
• **Jesus Lazkoz Urkia,** otsailaren 24n Arbuzun
• **Maria Zabaleta Telletxea,** otsailaren 26an Urdiaian
• **Carmen Lopez Ruiz de Galarreta,** otsailaren 27an Olaztin

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Kulturaren 'hackeoa'

'Badon* opera posdramatikoa' ikuskizuna aurkeztuko dute gaur, martxoak 1, ostirala, Iortia kultur gunean. Korrika Kulturalak sustatutako obra bat da, euskal kulturaren "errebisiotik" sortutakoa. Hainbat diziplina uztartzen ditu

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Zer da Badon? "Hori da mundu guztiak egiten duen galdera, eta guk gure buruari egin dioguna". Xanti Agirrezabala *Badon** opera posdramatikoa antzezlaneko antzezletako bat da. "Sormen prozesu handi bat dauka atzetik Badon proiektuak". Korrika Kulturalaren barruan mustu dute "euskal plazaren inguruko errebisioa" bezala definitu duten obra, eta gaur, martxoak 1, ostirala, 19:00etan, Iortia kultur gunean izanen da. Sarrerak 7 eurotan eros daitezke kultur gunearen webgunean eta txar-teldegian.

Badon proiektua bi fasetan banatu zela esan du Agirrezabalak: "Lehenengoa espekulazio fasea izan zen eta bigarrena prototipazio fasea". Lehenengo fasean euskal plazaren inguruko errebisio bat egiteko prozesua zabaldu zuten, "eta Euskal Herriko sortzaile pila batek parte hartu zuten gai horren inguruan gogoeta batzuk eginez". Hortik ateratako informazioarekin hurrengo fasera pasa ziren, prototipazio fasea: "Korrika Kulturalerako estreinatu zen ikuskizun hori ontzen egon gara beste lan talde bat".

Korrika Kulturalaren ekitaldi nagusia da *Badon** opera posdramatikoa. "Korrika bekaren laguntzarekin egin da proiektua, eta lehenengo ere Korrika izan zen lehenengo sosa eman zizkigunak *Mauriziak ez dau inor hil* eta hau guztia sortzeko". Proiektuan hainbat diru laguntza eta erakunde gehiago sartu direla azaldu du antzezleak. "Pieza handitzen eta handitzen joan da, eta sobredimentsio handia hartu du, opera dimentsio hori".

Opera izan da sortzaileen "lanerako markoa". Arte guztiak

barnebiltzen dituen artelan handi bat bezala definitu du Agirrezabalak opera, "bertan biltzen delako musika, antzerkia, dantza, arkitektura edo eskultura...". Arte oso horren kontzeptua hartu zuten eta buelta bat eman zioten: "Ez da opera klasiko edo liriko bat, opera esanda burura etortzen zitzaidan hori. Bagenekien musika egongo zela, baina ez zen kontzertu bat; testuak garrantzia izango zuela, baina ez zen antzerki narratibo klasiko bat, eta amu gisa opera deitze hori erabili dugu opera bera ere hackeatzeko eta moldatzeko". Badon-en lanabes handiena "hackeoa" izan dela esan du antzezleak: "Euskal kulturaren hackeoa, operaren hackeoa, baita eszenarioarena edo plazarena ere".

Opera posdramatikoa

*Badon** opera posdramatikoa diziplina desberdinak biltzen ditu: "Taula gainean bost interprete daude, horien barruan antzerki mundutik gatozenak gaude: Ainara Gurrutxaga, Amaia Irazabal (Marina Suarez ordezkatzeko ari dena) eta ni. Ines Osinaga ere taulan dago, musikan esperientzia duena eta Oihana Vesga dantzaria da". Bost antzezleak ez ezik, musikak garrantzia handia duela esan du Agirrezabalak, "baina batez ere arte bisuala eta proposamen plastikoa oso garrantzitsua da. Zuzeneko proiektzioak egiten dira, Itziar Garalucek egiten duena".

EUSKAL HISTORIAREN BERRIKUSPEN BAT DA, "KOSMOSETIK ETA BIG BANG BATETIK ABIATUTA"

Baina, orduan, zer da Badon? "Horrelako bidaia bat proposatzen du antzezlanak, bost ekitalditan zehar bost koadro agertzen dira. Koadroetan banatuta dago antzezlanak, eta koadro bakoitzak kolore bat dauka, eta kolore bakoitzak esanahi bat dauka". Euskal historiaren berrikuspen bat dela esan du antzezleak, "kosmosetik eta Big Bang handi batetik abiatuta: landareria, animalien mundu nola sortu zen, gero gizakia eta hortik mundu espirituala". Bidaia hori kolore bakoitzaren zehar egiten da eta kolore bakoitza gai bat da: "Hor aurki ditzakegu euskal erreferenteak. Baina zer da euskal eta zer ez da euskal". Kantak, tonuak, koplaren bat eta musika elektronika eta gauza "bisual" asko aurki daitezke. "Publikoarentzako inmersio bat da, non ikusi eta entzuteaz gain, saiatu izan da usaimenean eta dastamenean ere eragina izaten". Arte "oso bat" planteatzen du Badon-ek.

*Badon** opera posdramatikoa proposamen "desberdin" bat da. "Berritzailea esaten ere ausartuko nintzateke. Euskaraz eta euskaratik sortua; euskaldunak gara eta guretik egin dugun zerbait izan da". Euskal eszenan erraz topatu ezin daitekeen gauza bat dela esan du Agirrezabalak. "Ez da narratiba bat non istorio bat eta pertsonaiak jarraitu behar diren". Esperientzia "sentsorial" bat dela nabarmendu du antzezleak. "Ikustera etortzen denari gomendatuko nioke ahalik eta modu irekienean etortzea, eta erlaxaziotik gozatzeta". Sentsorialitate aldetik, zer entzuten eta ikusten den kontuan hartuta, sakandarrek "sorpresa polita" eramango dutela gaineratu du.



'Badon' antzezlanaren une bat. UTZITAKOIA



'Badon' antzezlanaren une bat. UTZITAKOIA



'Badon' antzezlanaren une bat. UTZITAKOIA

Arratsalde euritsuari, plaza dantzak

Etorkizuna dantza taldeak eta Aguraingo Dardara Gunea dantza eta mugimendu espazioak dantza plaza saioa antolatu zuten otsailaren 25ean, Iortia zabalguneko estalpean. Hainbat herritarrek arratsaldea dantzan pasa zuten

ALTSASU

Altsasuko Etorkizuna dantza taldeak Aguraingo Dardara Gunearekin batera zita bat jarri zuten otsailaren 25ean, igandean, 18:00etan Foru plazan; *Plaza dantzak* ekimena antolatu zuten. Eguna iritsi eta euri zaparradak kontuan hartuta, azken orduan saioa lekualdatu zuten eta Iortia zabalguneko estalpean bildu ziren hainbat herritar. Dantzarien esanetara adin guztietako hamarnaka herritar aritu ziren jauziak eta bestelako euskal dantzak ikasten eta egiten. Igande arratsalde euritsu desberdina pasa zuten, dantzarekin gozatzeko.



Plaza dantzako parte hartzaileak. ETORKIZUNA



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

Nutrizio altxorra deskubritzen

Bizimodu osasungarri baten bilaketan, funtsezkoa da, jaten duguna ez ezik, gure elikagaiak nondik datozen ere kontuan hartzea.

- Tokiko produktuak aukeratzeak lurrarekin eta ziklo naturalarekin lotzen gaitu. Sasoiko elikagaiak kontsumitzean, naturak urtaro bakoitzean eskaintzen dizkigun nutriente optimoak aprobetxatzen ditugu, uneoro gorputzari behar dituen nutrienteak eskainiz. Bertako produktuen freskotasunak zaporea hobetuz gain, nutrizio-kalitatea ere hobetzen du.

- Kimiko gutxiago, nutriente gehiago: elikagai ekologikoak aukeratzeak pestiziden eta herbiziden eraginpean murriztuago egotea esan nahi du. Aldaketa hori ingurumenerako onuragarria

izateaz gain, ondorio positiboak ere badakartza gure osasunarentzat. Hondakin kimikorik gabeko elikagaiak aukeratzeak, oinarrizko nutrienteen xurgapena maximizatu, eta dieta orekatua lortzen lagunduko digu.

- Nutrizio eta ingurumen iraunkortasuna: Tokiko nekazari laguntzean, nekazaritza-praktika iraunkorrakoak eta etikoagoak sustatzen ditugu. Horrek, era berean, biodibertsitatea zaintzen du eta etorkizuneko belaunaldientzat elikagai freskoak eta nutritiboak etengabe eskura izatea bermatu.

- Tokiko ekonomia bultzatzea: Tokiko produktuak kontsumitzeak gure osasunari mesede egiteaz gain, tokiko komunitateak indartzen ditu.

Produktuak zuzenean bertako nekazari erostean, gure eskualdeko garapen ekonomikoan laguntzen dugu. Zirkulu bertutetsu honek sare sendoago bat sortzen du, non guztiek elkarrri onura ateratzen diogun.

Elikadura lokala eta ekologikoa bidaia nutrizionala eta etikoa bihurtzen da. Printzipio horiek gure dietan txertatzean, gure gorputza bitamina eta mineral ugari elikagaiekin elikatzeaz gain, ingurumena zaintzen eta tokiko komunitateak indartzen laguntzen dugu. Gure plateran jartzen dugunaren aukeraketa kontzientea ez da soilik elikadura erabaki bat, baizik eta gaur eta bihar guztion mesederako den bizimodu batekiko konpromisoa.

Lakuntzako punk klasikoa

Muga Zero taldeak Herri Urratseko lehen maketa lehiaketa irabazi du. Epaimahaiak talde lakuntzarraren "punk klasiko eta itsaskorra" nabarmendu du

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Pandemia garaian sortu zen Muga Zero taldea. "Joni Zapra nire aldamena da, eta bagenekien gitarra jotzen genuela bata besteari entzuten geniolako. Egunen batean zerbait egin behar genuela komentatzen genuen, baina beti gerorako uzten genuen eta ez genuen ezer egiten". Egun batean Ibai Lanz Beteluk zerbait egiteko proposatu zion, eta "probatzen" hasi ziren. Ondoren, bateria jolea behar zutela pentsatu eta Ander Gasko Lizarraga sartu zen proiektuan. Oier Larunbe Lizarraga baxu jolea izan zen azkena. Lau urte berandua go Herri Urratseko lehen maketa lehiaketako irabazlea izan da Lakuntzako taldea.

40 taldek parte hartu dute Herri Urratsek antolatu duen lehengo maketa lehiaketan. Epaimahaiak hamar lagunek osatzen zuten, Herri Urratseko kideak, Badok atariko kideak eta musikariak, eta aipatu dutenez "azpimarratzekoa" izan da aurkeztutako lanen kalitatea, "agerian geratu da euskal eszena indartsu dagoela". Hortaz, erabakia ez dela "batere erraza" izan esan dute. Lehiaketan parte hartu zuten 40 taldeetatik sei iritsi ziren finalera: Arrasateko Banana Shake punk-rock-ska taldea; Baionako Kuma no Motor hardcore-punk taldea; Barakaldoko Laztana-laztana elektronika-regaetioia taldea; Ipar Euskal Herriko Mizelium elektronika taldea; Baionako RTZ rap taldea, eta Muga Zero.

Muga Zero taldearen "punk klasikoa eta itsaskorra" harri-patu" ditu epaimahaiko kideak.

Euskal punkaren hastapenetara bidaiatzeko aukera ematen duela gaineratu du Herri Urratseko maketa lehiaketaren epaimahaiak irabazlea jakinaraztean. Talde lakuntzarrak maiatzaren 12an Senpereko lakuaren bueltan ospatuko den Herri Urratsean kontzertua emanen du, Nafarroa gunean. "Bakarrik esan dezakegu oso handia izanen dela". Gaskok aipatu duenez, "hau guztia ikaragarria izan da guretzat. Honekin taldea jende gehiagorengana iritsiko da. Albiste oso ona da; brutalala". Seaskak antolatzen duen festan emanen duten kontzertua "beste zerbait" dela eta toki berezia dela gaineratu dute taldekideek.

Muga Zero

Esan daiteke, Donostian bizi den Lanzen lehengusu bati esker irabazi dutela maketa lehiaketa: "Berak ikusi zuen Herri Urratsek lehiaketa egingo zuela eta izena emateko aholkatu zigun. Esaten genuen: Baina nola parte hartu behar dugu! Azkenean, bidali genuen". Hiru abesti eta argazki bat aurkeztu behar ziren. "Ez genuen inolaz ere espero. Ia-ia ahaztuta genuen kontua. Gaur egun, punk-rock-a ez da punteroena, gainera". Aurkeztutako beste taldeak ikustean "denetarik" zegoela ikusi zuten, Gaskok aipatu duen bezala. Sorpresa hartu zuten.

**MUGA ZERO
TALDEAREN
ZUZENKOETAN
TALDEKIDEEK
"PRESENTZIA" DUTE**



Muga Zero taldea. UTZITAKOIA

"Guk gure musikari eta letrei etxeko punk-rocka esaten diogu. Ez dakigu zehazki nola azaldu", esan du Gaskok. Baina epai-mahaiak esandakoarekin ados daude taldekideak. Lanz: "Definitzioa izan daiteke, bai. Ez dugula sekula pentsatu, baina ongi definituta dago". Lakuntzan "beti" eman den punk horren "jarraipena" egiten du Muga Zerok.

Bi taldekide zirenetik hasi ziren haien abestiak sortzen. Lanzek azaldu duenez, "Joni aurretik Behin betiko taldean egon zen eta ez dakit zenbat urte egon zen jo gabe, eta ni ere Embajadatik bost urte edo horrelako zerbait neraman jo gabe. Denbora tarte horretan talderik gabe geundenez buruan ideien bat sortzen joan zen, noizbat talde bat edukiz gero gauzatzeko".

2023. urtean taldearen izen beraren diskoa kaleratu zuten, Muga Zero, zortzi abestiz osatuta: *Amen*, *John kriminal*, *10.000 jubilados*, *Biharko eguna*, *Ez, ez eta ez*, *Bik-tima*, *Aske izan artea* eta *Muga Zero*. *Amen* abestiaren bideoklipa ere kaleratu zuten, eta aste honetan *Game over* abestia eta bideoklipa kaleratu dute. Bi bideoklipak Dani SKSTek sortu ditu. "Oso ona da. Ongi ulertzen du zer nahi dugun". "Pixkanaka" abesti berriak egiten ari direla azaldu du Gaskok, baina ez da-

kite noiz aterako duten disko berria. Lanzek etxean grabatzen dituzte, eta sortze prozesuan daude. Kontzertuetarako abestien bertsioak prestatzen ari dira ere.

Abestiak sortzen "egunak eta egunak daudela" aipatu du Lanzek. "Egun batean abesti ia oso bat egin dezakegu, eta beste egun batean ez da ezer ateratzen, agian zatxixto bat, baina hurrengoan entzun eta ez zaigu gustatzen". Sortze prozesua "oso abstraktoa" dela gaineratu du. Erritmoarekin eta musikaren hasten direla esan du Gaskok, "eta gero letra egiten dugu. Zer gai landuko dugun erabakitzen dugu".

Letrei dagokionez Herri Urratsko maketa lehiaketako antolatzaileek esan omen diete *Amen* bideokliparekin "polemika" sortu dela, "ikastolako guraso batzuen artean komentatu omen zuten ea nola zen posible talde hori bideoklip horrekin apaiza akabatzen dutela...".

Zuzenekoak

Kontzertuetan energia "gehien" ematen saiatzen direla esan du

LAKUNTZAKO TALDEAK HERRI URRATSEKO MAKETA LEHIAKETA IRABAZI DU

Lanzek. "Jonik izugarritzko presentzia du eta horrek asko betetzen du. Besteek ahal duguna egiten dugu". Abeslariaren energia hori taldekideetan kutsatzen da. Gasko: "Jendeak esan digu eszenatikian presentzia asko dugula. Mugimendua erakusten dugu. Ni esaterako baterian asko mugitzen naiz, eta Larunbe eta Ibai Jonirekin ere ibiltzen dira". Kablekin jotzen dutenez, askotan haien artean nahasi direla gaineratu du Lanzek.

Herri Urratsen emanen duten kontzertua "kristorena" izanen dela esan dute taldekideek. Horrelako jaialdi batean emanen duten lehenengoa izanen da, hala ere, Muga Zerok eszenatoki "handietan" jo izan du. Tropa do Carallorekin Totem (Dinamita taldearekin batera ere) eta Dokan jo izan dute, eta martxoaren 9an, larunbata, Tropa do Carallorekin etxean, Lakuntzako kultur etxean ariko da ere. Aurretik, gaur bertan, martxoak 1, Iruña Rocken ariko dira NMC Eszenatikian.

Urte hauetan talde "lan egiteko moduan" garatu dela aipatu dute taldekideek. "Hasiera batean abesti batekin denbora pila bat pasatzen genuen eta orain dena askoz neurtuago dugu. Badakigu estrofa baten ondoren zer egin edo zer proposatu". Dena grabatzen joaten direla azaldu du Lan-

zek. "Askoz denbora gutxiagoan gehiago egiten dugu. Erraztasuna irabazi dugu". Bestela, Lakuntzako taldeak hasierako estilo eta helburu berdinekin jarraitzen du: "Noizbait zertxobait aldatu izan dugunean ez da taldean mamitu". Lanzek akustiko bat sortu zenean, esaterako, taldekideek oso ongi zegoela esan, baina zuen aurrera egin.

Taldetik zerbait nabarmentzekotan estilo propioa da: "Orain popa edo punk-oi asko entzuten da, ahots askoz gogorragoekin. Gurea zerbait melodikoagoa, punk-arekin nahasia".

Kontzertuak egiten dituztenean eta "ateratzen" direnean oso ongi pasatzen dutela esan du Gaskok: "Jende berria ezagutzen dugu, talde berriak...". Taldekideen helburuetako bat jende gehiagorengana iristea eta Muga Zero "izena" zabaltzea da, "toki gehiagotan jotzeko". Zaletasuna "modu txukunean" egiten saiatzen dira. "Nolabait adiktiboa da. Toki berriak ezagutzen ditugu, talde berriak, eta gure artean ere talde bat gara. Hortik gaudenean anaiak bezala gara. Esaterako, Santurtzin Lakuntzako lau tipo... Gure artean familia bat bezala ibiltzen gara", esan du Lanzek. Haien eta beste taldeen artean dagoen elkartasuna ere aipatu du Gaskok talde batean aritzearen alde onak aipatzean.

"Merezi duen" sakrifizioak ere eskatzen ditu: "Futbolearen aritzen den jokalaria bezala, futbola asko maite du eta jokatzeko gustatzen zaio, baina zure herriko jaiak direnean hurrengo egunean partida jokatzera joan behar zarenean... Berdina gertatzen da. Gehienetan oso gustura egiten dugu, baina batzuetan pixka bat sakrifikatu behar gara". Asteazken zehar ere denbora kentzen duela aipatu du Lanzek, "baina kontzertuetan du".

Tropa do Carallorekin lan berria

Martxoaren 9an, larunbata, Tropa do Carallo eta Muga Zero taldeen kontzertua izanen da, 19:30ean, Lakuntzako kultur etxean. Sarrerak evaristoparamos.com webgunean eta Lakuntzako Ogi berrin eros daitezke, aldeaz aurretik 12 eurotan eta egunean bertan 15 eurotan.

Tropa do Carallo taldearen bateria jolea *Tripi* lakuntzarra da, eta martxoaren 9an zuzenean jotzen ikusteko aukera izanen dute lakuntzarrek, sakandarrek eta bertaratzen den jende guztiak.

Apirilaren erdialdean disko berria kaleratuko du Evaristoren taldeak, eta Lakuntzako kontzertua berezia izanen da lan berriaren abestiak joko dituztelako "esklusiban", aurkezpen kontzertua izanen da, eta, beraz, taldearen disko berria entzuteko aukera izanen da.

Lan berriaren Evaristok bere izaera mantentzen du eta "guztiarekin sartzeko". Hori da disko berriaren gauzarik nabarmenetarikoa. Diskoak hogeita abesti ditu, eta denetariko gaiak jorrotzen ditu; besteak beste, Bardeak, Admin Artifiziala... Tropa do Carallorekin bigarren diskoa da, 2021an Qué hostias andáis! diskoa kaleratu zuen. Aurki diskoaren aurrerapen gisa abesti bat publikatuko dute.

"Aberasgarriena sagardoak probatzea da"

Olatz Zabala Igoa sagardotegi denboraldian bete-betea sartuta dago. Etxarriarrak Astigarragako sagardotegian egiten du lan; sagarrak eskuz biltzen dituzte, eta "etxean" egiten dute sagardoa. Larrarten "etxean bezala" sentitzea nahi dute

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A.

1 Sakandar bat sagardotegi batean lanean. Nola?

Sagardotegia bikotearena da, lan asko dago egiteko eta bera bakarrik dago. Bion artean ari gara. Larrarte sagardotegia da, Astigarragan. Sagardoa jaino omen zen herria. Ostegun gauek igande eguerdira irekitzen dugu.

2 Aurretik mundu hori ezagutzen zenuen?

Ez, egin ahala ikasten joan naiz.

3 Nola lortzen dituzue sagarrak?

Sagarrak guk biltzen ditugu. Sei hektarea sagasti ditugu, eta eskuz biltzen ditugu. Inguruko baserriarrek ekartzen dituzte ere. Normalean horrela egiten dugu; ez dugu kanpotik ekartzen. Aurreko urtean oso sagar gutxi egon zen, eta kanpotik hartu behar

izan genuen. Baina ahal dela ez dugu kanpotik ekartzen. Gureak eta inguruko baserriarrek dira.

4 Zein da sagardoa egiteko prozesua?

Hasieran sagasti guztietan begiratu behar da zer sagar diren ikusteko, mota asko daudelako, eta onduta edo heldutasun batera iritsi direnak hartzen dira. Egoera egokienean daudenak. Bilketa prestatzen da; nondik nora bildu behar dugun prestatzen dugu, eta hurrengo urratsa biltzea da. Saiatzen gara sagarrak egunean bertan prozesatzen. Dena eskuz biltzen da, eta lan handia da. Makilak erabiltzen dira, puntan iltze bat bezala dute. Etxera ekartzen ditugu eta lehen urratsa garbitzea da. Pilatzen dira eta kanal batetik garraiatzen dira. Hor bueltaka egoten dira garbitzen. Etxe ba-

koitzaren mekanismoaren arabera, neurriaren arabera selekzioa egiten da eta ustelak kentzen dira, gera zitezkeen adartxoak eta interesatzen ez zaizkigun gauzak kentzen dira. Hortik txikitzaera joaten dira; prentsa bat dago eta sagarrak estutzen ditu. Hortik kupelara joaten dira. Berez ez dauka askorik. Erraza da.

5 Zenbat denbora behar du?

Sagarrak bildu eta sagardo egin arte hilabete bat gutxi gorabehera. Txikitu eta hori dena egunean bertan egiten da. Hortik zuku ateratzen da, eta fermentatzen hilabete bat inguru pasatzen da.

6 Zenbat litro egiten dituzue?

100.000 edo horrelako zer bait.

7 Sagardoa egiteko prozesua bisita daiteke?



Olatz Zabala Igoa etxarriarra Larrarte sagardotegian. UTZITAKOIA

Bai, normalean ez dugu arazorik. Saiatzen gara asteburuetan zerbitzua bukatzean edo goizean goiz egiten. Asteazkenean ere lasaiago gaude. Baina ez dago problemarik ikusteko.

8 Nolako da sagardotegia?

Guk bi tokitan antolatuta dugu: behean upategia dago eta 130 bat pertsonendako tokia dago, baina txotx egitean eta jendea hortik ibiltzen denez ez da hainbeste jende sartzen eta lasai mugitzeko eta jateko ehun bat pertsona sartzen dira. Goian erretegia dugu eta bertan 40 bat pertsona sartzen dira. Erretegian ez daude kupelak, baina jaisteko aukera dago. Erretegia urte osoan irekitzen dugu, abenduan eta urtarrilean bitarte hilabete gutxi gorabehera izan ezik. Sagardotegia San Sebastian egunaren inguruan irekitzen dugu, eta maiatzera gutxi gorabehera. Ordurako sagardoa bukatzen joaten da, eta sagardotegi batera sagardoa probatzera zoaz.

9 Erretegiaren edo sagardotegiaren giroaren artean aukeratu behar baduzu?

Giroa desberdina da. Nahi baduzu lasai egon, familiarekin eta goxo: erretegia. Nahi baduzu lagunekin, larunbata batean, jaleo pixka bat, jendea ezagutu eta hau eta bestea komentatzen

egotea gustatzen bazaizu: sagardotegia. Jendearekin egoteko aukera gehiago ematen du.

10 Nolako jendea bertaratzen da?

Denetarik. Bertakoak, iparraldekoak eta frantsesak, eta sakandarrak ere egia esan mugitzen dira. Aurreko egunean Kanarietako talde bat egon zen. Sagardotegira etortzen direnak, horretara espreki etortzen dira. Jendea gustatzen zaio. Bitxia dela esaten dute. Esaten digute azkenean ez duzula bazkaltzen joan zarenarekin, jende gehiagorekin bazkaltzen duzula, eta aberasgarria da.

11 Zer azpimarratuko zenuke?

Hoberenak garel, zer esan behar dut nik. Larrartek daukana da, etxean sentiarazten saiatzen garel. Nik uste horretaz aparte antzekoak direla denak. Sagardotegiak probatu behar dira. Badira beti sagardotegi berdina joaten direnak, baina probatu behar dira. Lan izugarria da, urte bateko lana hilabete batean ematen da, eta ez da okindegia batean labealdi bat gaizki ateratzen bada bota eta hurrengo egunean beste bat egin dezakezula. Hemen ezin duzu hori egin. Esaten dutenean hori txarra da; ez da txarra, agian zuri ez zaizu gustatzen. Aberasgarriena probatzea da.

**ZURE PROIEKTUA
GARATZEKO
LAGUNTZARIK
BEHAR AL DUZU?**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

